



ARGIA

**INOIZ, INOLA, INON
EZ GARA ISILDUKO**

MOZAL LEGEAREN AUZIA IRABAZI DUGU



Datorren astean




PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Mexikon herritarrek armaturik, bizirauteko

IRITZIAK

- 17 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 18 Karlos Gorrindo
- 19 Jose Inazio Basterretxea
Miren Artetxea
- 20 Irati Elorrieta



Besteak beste bullyingaz lekukotza jasotzen du bere kantetan Maider Legarreta galdakaoztar abeslari gazteak. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA:
LIZZIE BORDEN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO MARRAZKIA: JOSEBA LARRATXE

SAKONEAN

- 12 | Maider Legarreta, kantaria: "Eskolak ez du ezer eskaintzen musika ikasteko" / Miel A. Elustondo
- 22 | ARGIA mozalik gabe: Isiltzen denak zorionik ez du / Axier Lopez, Xabier Letona
- 28 | Adierazpen askatasuna: Kalea guztiona al da? / Lander Arbelaitz
- 33 | Sendagai arrastoak ibaietan: Etxeko botikina, kutsadura iturri / Asier Arrate Irukieta
- 36 | EHE: "Baldintzak badaude euskalgintzak eta instituzioek akordio saiakera egiteko" / Onintza Irureta Azkune
- 43 | Euskalduna naiz, eta zu, ni bezala, gerra kultural batean sartuta zaude / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 44 | César Strawberry: "Gogoeta baldintzatzea erregimen autoritario oren egunerokoa da" / Saioa Baleztena
- 47 | Arte iruzkina: Antonio Gezala / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia


DOAN ETA LIBRE

 ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
 Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
 Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
 Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetzat harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.
 Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diegu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (43 € urtean).





PANORAMA

Printze eta printzesa urdinen zain egon barik

Ez dira inoren laranja erdiak, emakume hauek, emakume osoak dira, eta beren burua dute 'matxe-matxe'. Bizitzako egun guztietan beren burua maitatu, zaindu eta errespetatzeko konpromisoa hartu dute, Ondarroan senide eta herritarren konpainian ospatutako ezkontza zeremonian. Bakoitzak egoki ikusi dituen botoak sinatu ditu. Elkarrekin lotuta egotearen ideia askatu du batek, bizitzak emandakoa bizitzeko paktua eginez. Uko egin diete kontrolari eta autoexijentziari, besteen beharrak asetzeko, norbere burua albo batera lagatzeari, inoren ardurak norbere gain hartzeari, norbere burua zigortu eta derrigortzeari; norbere buruarekin beraz exijentzia 0.

Argazkia: Dani Blanco · Testua: Alejandra Goikoetxea

Antzin herrian euskararen eta bertako alkatearen aurkako esku-paperak agertu dira kalean, herriko eskolan D ereduko adar bat irekitzeko asmoa dagoelako.



“Dirudienez, Nafarroako Antzin herrian australopitecus hispanus-en kolonia oso aktiboa bizi da”

@Indautxutik



“Foru polizia informatu dut. Gehiagora baldin badoa jasota gera dadin. D eredua familiek eskatu dute eta ikastetxeek familiek eskatutakoa eskaintzen ez badute, ixtera kondenatuta daude”

Javier Dallo, alkatea



“Aniztasunarekiko eta ikuspegi ezberdinekiko errespetua eskatzen dugu. Herri honek zonalde mistoan sartzeko nahia erakutsi du, legitimitate osoz eta udal gehiengoaren babesarekin”

Maria Solana, Nafarroako Gobernuko bozeramailea



AHOTSA.INFO

Iruñeko istiluak gaitzetsi dituzte Udalak eta EH Bilduk

Xabier Letona

@xletona

Martxoaren 11n istilu larriak izan ziren Iruñeko Alde Zaharrean. Hainbat erakunde manifestazioa deitu zuten “Errepresioari autodefentsa” lelopean eta testuinguru horretan sortu ziren istiluak manifestarien eta Espainiako Poliziaren artean. Hainbat edukiontzi bota zituzten gazteek, eta harri, botila, zuriri eta bengalak jaurti zizkieten poliziei. Lau gazte atxilotu zituzten, poliziaren esanetan lauak Errenteriakoak. Hiru espetxera bidali dituzte, terrorismoa leporatuta. Honako taldeek sinatzen zuten manifestaziorako deialdia: Hirekin, Errotxapeako Gaztetxea, Alde Zaharreko gazteak, Indar Gorri, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimendua eta Ikasle Abertzaleak.

Iruñeko Udalak gertaerak gaitzetsi ditu. Nafarroako Gobernua sostengatzen duten alderdiek ere bai, besteak beste EH Bilduk: “EH Bilduk modu irmoan gaitzesten du gaur arratsaldean Iruñeko kaleetan gertaturikoa. Halako gertaerek gizartearen gehiengoak aukeratutako bidea oztopatzea dute helburu, alegia, bakea, elkarbizitza eta normalizazio politikoa. EH Bilduk argi eta garbi berresten du bere konpromisoa bide demokratiko eta erabat baketsuekiko, herri subirano bat lortzeko bidea. Beraz, helburu politikoetarako indarkeriaren erabilpena guztiz gaitzesten dugu”.

Ernaik kaleratutako oharrean, “irmoki salatu nahi dugu beste behin ere poliziaren jarrera bortitza”. Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimendua elkartasuna adierazi zien atxilotuei eta haien askatasuna eskatu zuten.

“Nor da eri, ahateak ala sistema industrial?”

PANPI SAINTE-MARIE, ELB EUSKAL HERRIKO LABORARIEN BATASUNAKO IDAZKARI NAGUSIA

Iparraldera iritsi dira ahateen hilketak, zenbait etxalde handitan indartu den hegazti gripea kontrolatzeko agintariak aginduta. “Joan den urtean, hegaztien gripea agertu zelarik, sistema industrialak ikaratu zen. Eritasun horrengatik esportatzea debekatuko zitzaiela eta. Baina sistemak erabaki zuen aha-te guztien hiltzea, huste sanitarioa egitea eta berriz hastea sekula bezala! Aterpe handi berrietan, berriz ere kamioiak bideetan barna, berriz baldintza guziak gaur bizi dugun egoerarat heltzeko: berriz ere gripea hor dugu! Milioika euro kostako da. Diru publikoa baliatzen da interes pribatuek asmatu sistemaren kalteak ordaintzeko”. **LABORARI (2017-03-07)**



DEMOCRAZIAN

Menderatzailea trufa daiteke subalternoa

Geure buruaz
barre egitea
sanoa da
Hombre!

KOAR
KOAR
KOAR

INOIZ
INOLA
INONDIK
INORA

Subalternoa ez daiteke menderatzaileaz trufa

ANTIESPAINIARRA!
HERRA-ERAGILEA!
XENOFOBIA!
TRIBUNALETARA!
BOIKOTA!!!

Oinarriko lege hori betearazteko funtzionarioak badauzka

BARKAZIOA
ESKATU!!

ARBUIAGARRIA!
IRAIINGARRIA!
EZEZTATU!!!

NAFARROAKO
LEGE BILTZARRA

EUSKO JAURLARITZA

“Guztiok izan beharko genuke feminista” saiakera ikastetxe guztiei banatuko zaie

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarraren *Guztiok izan beharko genuke feminista* saiakera euskaraz argitaratu du Hik Hasik. Lana Euskal Herriko ikastetxe denetara zabalduko dute.


Ngozi Adichie idazle nigeriarrak badaki feminista hitzak konnotazio negatiboak dituela, eta era berean oso argi du guztiok izan beharko genukeela feminista, emakumeen eta gizonen arteko eskubide berdintasuna jokoan dagoelako. Saiakera labur honetan, feminista zergatik izan beharko genukeen argudioak ematen ditu. Horretarako adibide asko jartzen ditu, hasi bera haurra zenekoak eta gaur egun berari eta bere inguruko emakumeei gertatzen zaizkienetara.

Esate baterako, umetan ikasgelako notarik onena aterako zuenak ikasgelako begiralea izateko aukera izango zuen. Ngozik atera zuen notarik onena, baina irakasleak esan zion begiraleak mutila behar zuela izan, ez neska. Gaur egun bestelakoak gertatzen zaizkio, adibidez, Nigeriako jatetxeetan gizonekin sartzen den bakoitzean zerbitzariak gizona agurtzen du eta emakumea ez.

Diskriminazioa, bai Nigerian, bai Europan

Adibidez adibide Nigerian emakumea izatea zer den azaltzen doa, nola bizi duten egunero, xehetasun txikienetan ere, diskriminazioa. Europako ikuspegitik begiratuta, hainbat egoera eta gertara gaintitutzat dauzkagula irudituko zaigu, baina zoritxarrez beste hainbat adibide oso ezagunak egingo zaizkigu.

Ngozi idazleak entzuteko idatzi zuen orain saiakera den lan hau eta ingelesez eskaini zuen TED talk deitzen diren saio horietako batean. Idatzizko jatorrizko lanaren izenburua *We should all be feminists* da. Suedian 16 urteko ikas-



Euskal Herrian Hik Hasiren zabalkundeari esker ikastetxe guztietan jasoko dute liburuxka. Suedian berriz, 16 urteko gazte guztiek opari jasoko izan dute liburuxka bera.

le guztiek saiakera honen ale bat dute. Euskarazko lana Hik Hasi egitasmo pedagogikoak argitaratu du, Plazara Goaz euskara elkarteak sustatu du itzulpena eta AEK-k itzuli du. Lorea Agirreren hitzaurrea dauka.

Hik Hasiren helburua Euskal Herriko ikastetxe guztietara zabaltzea da. Bestalde, edozeinen eskura dago sarean doan, plazaragoaz.blogariak.net webgunean.

EKONOMIAREN TALAIAN

PPren neurri egindako aurrekontuak



Juan Mari Arregi

Eusko Jaurlaritza 2017ko aurrekontuak negoziatzen ari da alderdi politikoekin. Diru sailen azterketa zehatz bat eginez gero ondorioa da PPreneurri eginak daudela, honen babes edo abstentzioarekin EAJk eta PSEk aurrera atera ditzaten. Aurrekontuak oinarrituta daude diru bilketa eskasean, eta horrek langile eta herri sektoreak kaltetzen ditu. Ekarpinak batez ere PFEZ eta BEZetik datoz (%37,2 eta %39,4 hurrenez hurren). Elkarteen gaineko zergak apenas ekarriko duen bildutakoaren %6,9 eta zerga bereziek %11. PFEZ-ri dagozkien errentzioetatik 5,4 bider gehiago bilduko da enpresen etekinei jarritako zergetatik baino.

Aurrekontu hauek Madriletik inposaturiko defizita onartzen dute eta oraindik auditatu gabe dagoen zorra ordaintzea lehenesten dute. AHT antisoziala eta ingurumenaren kontrakoa den arren -EHUko Ekopol taldeak hala azaldu berri digu-, aurrekontuetan lehenetsunezko tokia dauka proiektuak. Obra horientzako 350 milioi euro aurreratuko dizkio Jaurlaritzak Rajoyren Gobernuari eta ez dio exigitu ere egingo aurretik jarritako beste 1.100 milioi euroak itzultzea. Hori guztia koadratzeko, EAeko Gobernuak murrizketa sozialak egiten ditu (hezkuntzan, osasungintzan, laguntza sozialetan...) gehien daukanak diru-kutxari gehiago emateko zerga erreforma egokia egin beharrean.

Ezkerrekoak direla esaten duten talde politikoek euren benetako izaera azaldu beharko dute orain. Onartuko al dituzte PPreneurri egin-dako aurrekontuak? Ez dirudi serioa babesa ematea etorkizuneko legegintzaldien inguruko konpromiso eta promesetan oinarrituta. 2017ko aurrekontuak dira bozkatuko direnak, eta aldaketa handirik ezean, edukiak horietatik izango dira: neoliberalak.



ECUADOR ETXEA

Izarbeltz Ateneoa hustu dute

BILBO. Irala auzoko Izarbeltz espazio autogestionatua hustu du poliziak. Jabearen salaketaren ostean Ertzaintzaren furgonetak eta Udaltzaingoaren hainbat auto hurbildu dira Izarbeltzera; gunea prezintatu eta barrualdera sartu dira. Izarbeltz Ateneoak 11 urte daramatza lanean eta bertako kideek helegitea jarri dute hustearen kontra. Erabakia salatzen elkarretaratzea ere egin dute (irudian); jendetza elkartu da, Zabalburutik hasita Bilboko kaleetan barrena.

Errefuxiatuen harrera protokoloan, euskara

Ane Eslava Serrano

@eslavaane

Asilo eskaera egiten duten pertsonen harrera prozesuak kudeatzeko protokolo bat proposatu du Eusko Jaurlaritzak. UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak salatu duenez, protokoloak ez du euskararen irakaskuntza aintzat hartzen.

Kritika

UEMAk dio programan ez direla kontuan hartzen errefuxiatuei euskara irakasteko neurriak. Aitzitik, "gaztelaniaren irakaskuntzaren ardura" aipatzen da. Baztertzailatzat jo du errefuxiatuei bertako hizkuntza ez transmititzea.

Eskaera

"Elikagaiekin, arropekin edo aterpeekin batera euskara ere ematea modu ederra da beso zabalik hartzen ditugula erakusteko", adierazi du Josu Labaka Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakariak.

Neurriak

UEMAk hainbat neurri proposatu zituen 2015ean: iritsi berriei euskara irakastea eta herri bakoitzeko errealitatea ezagutaraztea; haur eta gazteei euskara errefortzu ikastaroak eskaintzea; helduei doako euskalduntzea bermatzea...

LURRIKARA



4,4

graduak lurrikarak (Richter eskalan) astindu zuen Iruñerria martxoaren 10 goizaldean. Orikainen izan zuen epizentroa, kilometro bateko sakonera izan zuen eta 4-5 segundo iraun zituen.

2,2

graduak indarra izan zuen lurrikararen lehen erreplikak eta Egues herrian sumatu zen.



BULLYINGA

Eskola jazarpen kasuak bikoiztu ziren EAEn, 2015-2016 ikasturtean: 121 kasu zenbaturitu Hezkuntza Sailak. Gehien errepikatzen den jazarpena hitzezkoa da (kasuen %43), segidan bazterketa dago (%25), eraso fisikoak (%16), eta mehatxuak (%11,6).



ZERGA IRUZURRA

Iruzuraren aurkako behatokia sortzeko legez kanpoko proposamena egin dute EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek Eusko Legebiltzarrean. EAJ, PSE-EE eta PPren ezezko botoek atzera bota dute proposamena.



AZAFATARIK EZ EIBARREN

Eibarren egingo diren lasterketa ziklistetan ez da gehiago azafatarik igoko podiumera, Australiako Tour Down Under lasterketak abiatutako bideari jarraituz. Beste hainbat herritan ere, Zarautzen kasu, hasi dira sexu-diskriminazioa garaitzeko urratsak ematen.

Mexikoko Guerrero eta Oaxacan herritarrak armatu dira bizirauteko



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Ofizialki *narkotrafikoaren kontrako gerra* bataiatu den sarraskiaren erdian, Mexikoko hainbat herri auzolaneko polizia sortzera jo dute jendeen biziak eta etxeak zaintzeko agintari ustelek bidalitako militarren edo narkotrafikoaren sikarioen atzaparretatik. *Policia Comunitario* uniforme jantzirik, ia bi mila gizon eta emakume armatuk patruilatzen dituzte Guerrero eta Oaxacako eskualde askotako bide eta karrikak.



Tarteka zabaltzen dira munduan azken hamarkadotan Mexikon endemikoa bilakatu den bortizkeriaren oihartzunak. Laster itzaltzen dira, Ayotzinapako 43 ikasle desagertarazi eta ziurrenik torturatu ostean hilen sarraskia ahaztu zen bezala. Baina Mexiko osoan egunerokoa dira bortxaketa, lapurreta, tortura eta hilketak; AEBek bien arteko harresia eraikitzeak are eztanda gogorragoetara kondenatuko du horko jendea.

Gero eta lotsagabeago beren legea ezartzen duten narkotrafikatzaileak batetik, eskupekoz usteldutako agintari politiko eta militarrek bestetik, atzerriatik jinik Mexikoko lurren jabe egin diren meatzaritzako multinazionalak harantzagotik... beren etsipenean komunitate askotan milizia armatuak antolatu dituzte. Iraultza handien ilusioz ez baina soilik bizirik irauteko itxaropenean.

Erdiko Amerikatik Suitzako *L'Echo* magazinerako idazten duen Cédric Reichenbach kazetariak "*Mexique: les villages s'arment pour survivre*" erreportajearen kontatu berri ditu berrikitan Guerrero eta Oaxaca estatuetatik egindako bidaia batean ikusitakoak, nola funtzionatzen duten bizirauteko asmoz beren buruak milizia armatuz hornitzea erabaki duten herrietan.

Guerrerok, bere hiru milioi eta erdi biztanleekin Mexikoko estatu pobreenetakoa denak, AEBek kontsumitzen duten heroina guztiaren erdia sortzen du. Tixtla herrira -21.000 biztanle- heldu da kazetaria: "Narkotrafikatzaileek

irrikatzen duten eskualde honetan ziztu bizian ugaritu dira heroina ekoizteko mitxoleta gorri eta horiek edertutako soroak eta haiekin batera krimena eta inpunitatea. Inoren babesik gabe, drogaren kartelei zuzenean obeditzen dieten poliziek pertsegituak, Tixtlako herritarrek erabaki zuten beren defentsa sistema antolatzea".

Hitzorduan aurkeztu zaio Tori, 28 urteko komandantea, aurpegia *kagula* edo *pasamontañas* batez estalia. Kontatu dio 2013an lanari ekin ziotenean *Los Rojos* karteilekoak zirela herrian nagusi, jendea jipoituz, bortxatuz, edozer ostuz beren AK-47 fusilak eskuetan. Herritarrek polizia komunitarioa osatu zutenean, narkoek atzera egin eta herria bakeratu zen. Geroago, ordea, *Los Ardillos* banda-koak agertu ziren, herritarrei elkarlana eskainiz, aurretik poliziarekin ere tratua lotu zutela argudiatuta, baina milizia berriak tratuari uko egitean gauzak okertu ziren.

Bazter batean elkarriketan ari direla, oharitu orduko kazetaria aurkitu da jende ondo armatuz inguratua. Torrik lasaitu du, segurtasun kontua dela: duela lau hilabete narkoek lau polizia komunitario hil zituzten segada antolatuta. Kasualitatez bezala, egun hartan polizia ofizialaren arrastorik ez zen hiltzaileak pertsegitzeko. Giroa mikatza da geroztik: "Kontu handiz ibili beharra daukagu. Hemen krimen antolatua eta Estatua, biak bat eginda daude. Eta narkoek salatariak dauzkate edonon".

San Luis de Acatlanera doa gero kazetaria. Ez da urrun Acapulco, lehen mailako gune turistikoa eta munduko hiri bortitzen artean laugarren. Gerreroko lehenbiziko Polizia Komunitarioa San Luisen sortu zen 1995ean, herritarrak izututa zeuzkan hilketa eta eraso giroari aurre egiteko. Hasieran, agintariak eta armadak berak erraztu zien bidea, baita armak eman ere, jendeak baretuko zituztelakoan. Inguruko eskualdeetara azkar hasi zen zabaltzen eta 1998an beren justizia eta espetxeratzeko sistema propioa ere antolatu zuten, gaizkileak polizia eta epaileei entregatzeak deuse-tarako balio ez zuela jabetuta.

Narkoak gaizto, Estatua gaiztoago

Reichenbach harritu da 42.000 biztanle biltzen dituen San Luis Acatlan udalerrizabalean sumatzen den giro lasaiarekin. Ez kontrolik, ez jende mozorroto armaturik, haurrak karriketan jolasean, herritarrek beldurrik gabe bide, soro eta plazetan... Milizia herritarraren fundatzaileetako den Gelacio Barrera Quinterok aitortu dionez, "ezin amestuzkoa zen hau 1990eko hamarkadan hasi ginenean. Ez genituen armak plazerez hartu, beharrak eraginda baizik. Jendea hiltzera behartu gaituzte. Gutako lagun asko ere erori dira borrokan. Orain Mexikoko leku askotan nahiko lukete hemen daukagun bakea".

Guerreroko 150 herritan zabalduta daude gaur 1.800 miliziano, Aginte Komunitarioen Eskualdeko Koordinadora



'Proces' egunkariak plazaratutako argazkian, CRAC-PCKo polizia komunitarioa armak kentzen Tixtlako udal polizia bati 2013ko abuztuaren 26an. Egun hartan herri batzarraren 50 milizianok udaletxea okupatu zuten, aurretik bost polizia mende hartuta, elkarri tiroka hasteko gutxiren faltan. Udalaren poliziek atxilotutako Nestora Salgado buruzagia eta beste 20 komunitario askatzea exijitzen zuten. Ondoko egunetan tirabira handiak izan ziren batetik Gobernuak Tixtlara bidalitako federal eta militarren, eta bestetik herri batzarraren polizia komunitarioen artean.

-Polizia Herritarra (CRAC-PC) delakoa- ren agintepean. Herri edo auzune ba- koitzak batzarrean izendatzen ditu bere agenteak, soldatarik gabe ariko direnak. Motibo handia eduki behar da izenda- penari uko egiteko. Ordainetan, gainera- ko herritarrek lantzen dituzte agentea- ren lurrak eta mantenua segurtatzen. Konpromiso zorrotza, dudarik gabe.

Herri batzarra, lekuotako indigenek europarren inbasiora arte zerabilten gobernatzeko modua, zapatistek egu- neratu zuten 1994an agintariei matxi- natu zitzaizkienean. Denborarekin ikusi da zapatisten bide bera hartu ez duten beste indigena eta mestizo askori ere baliagarri suertatu zaila antzinako herri usadio eta legeak eguneratzea, Mexikok bizi duen intentsitate apaleko gerraren erdian laguntzen baitiete bizirauten.

“Gerrilla antzeko bat osatzen dugu

-onartzen du Pablo Guzman komuni- tarioak- baina Chiapaseko zapatisten alderantziz, guk ez diogu gerra dekla- ratu Estatuari. Bakea deklaratu diogu. Eta batzuetan elkarlanean ari gara agin- tariekin, denen onerako baldin bada”. Hala ere, herritarrentzako Estatuaren militar eta poliziak dira beren malurren errudun nagusiak, eta ez diete batza- rrek kontrolatutako eremuetan ibiltzen uzten ez bada aurretik baimena nego- ziatuta. “Gure autonomia eraikitzen ari gara, bide bakarra delako gure bizimo- dua zaindu eta lurrak konpainia han- dien lapurretatik babesteko”.

Estatua izan da herritarrei galdetu ba- rik Mexikoko lurzorua zati handiak meatzaritzako multinazionaleri bi sosen truke saldu dizkiena. Kazetaria Oaxa- cako San Jose del Progresora iritsita, haiek jendei eragiten dizkieten pikar-

diak kontatu dizkio Rosalinda Dionisio Sanchezek, zeinari bi tiro eman baitziz- kioten Kanadako konpainia baten urre meategiari aurre egiteagatik. Hondea- makina erraldoien zarata gau eta egun, meategiak lapurturik ura desagertzea, erabilitako kimikoen kutsadura basa- tia... “Egia da narkotrafikatzaileek us- teltzen dutela gure herrialdea, duda- rik gabe. Baina bortizkeriarik gogor eta orokortuena Estatutik dator. Mexikok eta bere buruzagiek natur baliabideak saltzen dizkiete diru gehien eskaintzen dietenei, herritarrei galdetu ez baina ke- xatzen badira errepresioa ezarritz”.

San Jose del Progreson herritarren batzarrak udal paraleloa antolatu du bere bulego, azoka, irrati eta guzti. Ba- tzar luzeetan erabakitzen dituzte he- rriko eguneroko arazo txikiak bezala meategi erraldoia blokatzeko planak. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Maidar Legarreta, kantaria

“Eskolak ez du ezer eskaintzen musika ikasteko”

Kantari, eta Kantua ikasten Maidar Legarreta Musikenen. Estresatuta ere badabil aldi honetan, estu hartzen baitituzte irakasleek bertan ari diren ikasle bakanak. Hala ere, tarte egin digu, *The Road* albuma kaleratua duen Kantu ikasle kantariak.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Kantarizat definitzen zaituzte, “Maidar Legarreta, abeslaria”, oraindik musika ikasketak egiten ari zaren arren.

Ikasketak egiten ari naiz, baina txikitatik egon naiz ni musika ikasten. Kantua ikasten, berriz, orain dela bost urte hasi nintzen. 4 urterekin sartu nintzen musika ikasten. Lehenengo, 6 urte nituela, trikitia jotzen hasi nintzen –eta jotzen segitzen dut–, baina gero, gitarra ikasten ere hasi nintzen, eta pianoa, eta kantua... Musikenen sartzeko, ordea, espezializatu egin behar nintzen: jazz modalitatea aukeratu nuen eta, horren barruan, kantua ikasten nabil.

Lau urterekin, musika ikasten sartu zinen, edo gurasoek sartu zintuzten?

Bietatik apur bat. Amak pentsatzen zuen musika hezkuntza oso inportantea dela ume txikientzat, burua garatzen laguntzen duela, beste perspektiba batzuez jabetzen. Musikak bizitzako beste arlo askotarako ere balio duela pentsatzen zuen. Aitari, berriz, beti gustatu zaio musika, eta ados zen ni musika ikasten hasteko, eta horrela hasi nintzen, lau urterekin musika eskola txiki batean. Gero, bost urterekin, Galdakaoko musika eskolan hasi nintzen.

Trikitia, lehenengo.

6 urterekin hasi nintzen. Soinua jotzen dut, eta panderoa ere bai; eta kantatu ere bai, jakina. 11 urterekin, trikiti piezak konposatzen hasi nintzen, letra eta guzti, eta maketa moduko bat ere grabatu nuen sasoi hartan lagun baten etxean. Musika eta hitzak nireak izan ziren maketa hartan. Ikusten, pentsatzen eta sentitzen nituenak ipini nituen pieza haietan: naturari buruz, Euskal Herriari buruz... ari nintzen kanta haietan. Eta instrumentalak ere baziren pieza batzuk. Korrika txikiaren musika bat ere egin nuen, eta zenbait eskolatara zabaldu zen.

Nori begiratzen zenion kanta horiek asmatzeko garaian?

Txikitan Pirritx eta Porrotx entzuten nuen, baina baita Benito Lertxundi ere. Gura dut esan, hemen entzuten direnak, tipikoak. Nagusiagoa egin nintzeanean, 13 urterekin, telebistan Disney Channel ikusten hasi nintzen, eta han, Hanna Montana ikusi nuen. Filma ere egin zen hari buruz, eta osaba-izebek haren diskoa oparitu zidaten. Han zenbait country kantari azaltzen ziren, asko gustatu zitzaizkidan, eta horrek country gehiago entzutera eroan ninduen.

Dena dela, etxean beti entzun izan dut The Coors, Irlandako musika, eta kantua tradizionala, eta horrekin lotu nuen country-a. Horren bidetik, countryan gehiago sakontzen hasi nintzen.

Nola egiten da trikititik gitarrara edo pianoa, kantura baino lehen?

Gradu erdiko Bilboko musika eskolan sartu gura ote nuen galdetu zidaten orduko irakasleek, eta nik baietz, baina han ez zuten trikitirik erakusten. Orduan, zeharkako xirula ikasten hasi nintzen, eta urte bat iraun nuen. Gero, hori utzi eta kantua eta pianoari ekin nien. Kantu klasikoa ikasten hasi nintzen kontserbatorioan sartzeko asmotan, eta sartu nintzen, baina ondoren bi hilabete baino ez nuen horretan iraun, ez zitzaidalako gustatu. Ez dakit zer esango nukeen orain. Ez nekenez musika kontserbatorioan sartuko nintzen edo ez, pianoa ikasten hasi nintzen, eta pianoarekin batera, kantua. Kontserbatorioan sartu eta kantua lirikoan hasi nintzen, baina kantua klasikoa ere –opera eta beste–, ez zitzaidan gustatu: bi hilabete iraun nuen. Orduan, artean Bilbon, akademia batera jo nuen. Hango irakaslea Musikenen ikasia zen, eta hark aipatu zidan Musikeneko aukera.



Mainer Legarreta Larrañaga

1997, Galdakao

Kantaria. Herriko musika eskolan hasi zen musika ikasten gaur egun Musikenen bigarren ikasturtea egiten ari dena. Gaztea izanagatik ere, han eta hemen ikusi dugu, sareko grabazioetan ez ezik, baita bateko eta besteko hedabideetan ere, bullyingaz mintzo, eskola jazarpenaren lekukotza eskainiz, edota Hodei Egiluz zenari Stijn Vranken poetak flamenkeraz idatzi testua kantatuz. Oroz gain, kantaria baita, *The Beginning* maketak eta *The Road* albumak erakusten dutenez. NARBARTEN (Nafarroa) bizi da.

Hark bideratu zintuen...

Baina nik ez nuen uste sartuko nintzenik: "Oraintxe hasi naiz gradu erdiko eskolan Bilbon, eta utzi egin dut. Zelan sartuko naiz, bada, Musikenen?". "Urtebetean prestatu ahal zaitut, saiatu!", esan zidan irakasleak. Eta urte hartan, batxilergoa amaitu, sarrera proba egin, eta barrura: Musikenera! Bigarren urtean ari naiz orain.

Ez zenuen dudarik egin: musika ikasi nahi zenuen.

Beti jakin dut musika ikasi nahi nuela, baina zail ikusten nuen. Musikenen sartzea bera, gauza handia iruditzen zitzaidan. Batxilergoa aukeratzeko garaian ere zalantza handiak eduki nituen, nahiz eta, azkenean, batxilergo artistikoa egin nuen, musika, dantza eta arte eszenikoak lantzen dituen. Orduan bai, pentsatu nuen: "Musikenen ezin banaiz sartu, ikasten ahal dut Antropologia, Soziologia, edo Filosofia". Musikenen sartu nintzenez, aurrera!

Kantari, beraz, ez "abeslari ikasle".

Eta zenbat kantari daude Musikenen ikasten ari ez direnak? Ingeniaritza ikasi nahi duenak zenbait gai ditu, Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitatera bitarte, Ingeniaritza ikasketak egiteko balioko diotenak. Baina zenbat gai daude derrigorrezko irakaskuntzan musika ikasten laguntzen dutenak? Eskolak ez du ezer eskaintzen musika ikasteko, eskolatik kanpo saiatu behar zara. Kontua da zenbat ikasi gura duzun. Unibertsitatera Musika ikasketak egiteko asmotan heldu bazara, esan gura du ordu arte musika landu duzula. Musika arte bat da, pintura artea den moduan, txikitatik hasten zara ikasten, derrigorrezko irakaskuntzatik kanpora.

Zer erakusten dio Musikenek kantari izan nahi duenari? Zer galtzen du Musikenera gabe jarduten duen kantariak?

Galdere ona. Musikene instituzio bat da, goi mailako gradua eskaintzen du, goragorik ez dago, masterrak ez badira. Ni, adibidez, jazza ikasten ari naiz, eta hemengo ikasketek jazz munduko alderdi asko eta asko erakusten dizkirate, eta horietatik gura ditudanak, interesgarriak zaizkidanak, hartuko ditut gero neuretzat. Neure musikan erabili ahal ditudanak dira. Beste zenbait gauza, berri, jakingo dut hor daudena, baina ez

Galdakoztarra Narbarten

"Narbarten zer egiten dudan? Pobrea izan, gordin esanda. Donostian ez dago pisua ordaintzeko modurik, eta lagun batzuk, denak musikariak, baserri batean Narbarten bizi direnez oraintxe, eurekin joan nintzen bizitzen, han dena merkeago da eta"

Hobbya ogibide

"Gure ogibidea ez ezik, gure hobbya ere bada musika, eta momentu batzuetan frustrazioa sortzen ahal du horrek. 'Etorri jotzera halako ekitaldira!' esaten dizute. Baina iturginari ez diozu esaten, beste barik, 'etorri eta konpondu itoginak, momentu bat baino ez da!'. Gauzak ez dira horrela, ezta?"

"Bullied" kanta

Malko pare bat nire aurpegian behera, / nire odola zure eskuetan, / nola izan gintezkeen lagun? / Ihes egin beharra neukan olatu erraldoi hartatik / ez zidan ardura moduak, ez zidan ardura nire zoriak. / Baina inoiz ez duzue ordainduko / uste duzue ez duzuela nire beldur eta minaren errurik / halakoak izango zarete beti. / Senti dezakezue? zuen bihotz barruan, esnatu zuen burua eta ireki begiak. / Beldurrez nengoen egunero, / lotsatuta, baina ezin nuen esan. / Eta orain da unea, / non onartu behar baitut, / ez dudala ulertzen zergatik segitzen dudan hau behin eta berriz sentitzen. / Beste barik, jo gura ninduzuen / beste barik, garaitu gura ninduzuen / beste barik, suntsitu gura ninduzuen / guztiz. (Jatorrizkoa ingelesez da)

ditut, momentuz, niretzat hartuko. Niri, adibidez, Konponketa, Harmonia, Kantua gustatzen zaizkit, eta horien bidez, beste musika estilo bat egiten ikasten ari naiz, eta inprobisatzen. Bestela, akademia batean ere ikas lezake kantatzen abeslariak, ez du zertan Musikenera etorri kantatzen ikasteko.

Ez du unibertsitate mailako ikasketarik egin beharrik.

Ez. Esan gura dut hemen gauza asko ikasten ari naizela, gauza asko ikasiko ditut, baina amaitzen dudanean, titulua eskuratzen dudanean, gauza asko ikasten jarraituko dut, kalean, jendea ezagutuz, beste zenbait musikarirekin joz, beste zenbait irakaslerekin ikasiz... Hemen, egia da, ikasketetan sakondu eta titulua lortuko dudala.

Zer egin nahiko zenuke ikasketa hauek burututakoan?

Neure proiektua egiten segi, hemen ikasitakoak neure proiektuan barneratu, eta musikari moduan hazi, abesti hobek eginez, musikaren barruan gauza gehiago deskubrituz.

***The Beginning*-en eta *The Road*-en hasitako bideari jarraipena eman?**

Beste musika batzuk ere entzuten ditut, ordea, ez dut beti country-a egiten zertan ibili. Tira, *The Road*-en dena ez da country-a, gurako nuke hala izatea, baina beste musika askotako influentziak ere badauzkat.

Musika ikasketak egin, musika sortu, musika interpretatu... eta eskolak eman.

Ebidentea da musikariok gure bizitzan eskolak eman beharko ditugula. Jan gura badugu, eskolak eman beharko ditugu, orkestra batean sartu beharko gara, ezkontzetan jo... eta geure musika egiten jarraitu!

Zer behar da nork bere musika egin, interpretatu eta kantatzeko?

Gogo. Eta inspirazioa, eta zerbait esateko gura. Nik neure kantetako hitzak idazten ditut, sentitzen dudana kanporatu beharra daukadalako. Bestalde, musikaren bidez heltzen zaizkidan sentimenduak neure musikaren bidez transmititu gura ditut. Kate bat da. Gero eta abesti landuagoak gura badituzu egin. Derrigorra da ikasteko nahia ez galtzea, monotonian sartuko zara bes-



tela. Dena dela, ikasi guraz gero ez dago musika eskolara joan beharrik, musika entzun behar da horretarako, bide berriak saiatu.

Zergatik egiten dituzu kantak ingelesez?

Gura dudalako. Beti egiten didate galdera bera, baina ez dira konturatzen euskaraz ere egiten ditudala kantak. Kanta bat ingelesez egiten dudanean, gura dudalako egiten dut ingelesez, eta kito, ez dago besterik. Entzuten dudana musika gehiena, ingelesezkoa da, eta country egin gura badut, tradizioa ingelesez dagoenez, bada, ingelesez egiten dut. Euskal Herrian, musikaren industrian euskaraz egitea baloratzen da gehiena, edo gobernuaren kontra berba egitea, nahiz eta jotzen den musikak hutsa baliok. Nik ingelesez kantatzen dut, baina nire hitzak ere errebindikatiboak dira, gobernuak, matxismoa eta beste ere kantatzen dut, baina hitzak irakurri egin behar dira.

Zure kantetako hitzak irakurri, gura duzu esan.

Bai. Beti gabilta horretan: "Hemen kantatu gura baduzu euskaraz egin behar duzu", esaten dutenean, "Zergatik?" galdetzen dut nik. Beti gabilta berdin. Nik musika egin gura dut, musika hitzekin batera dator, ez doaz hitzak alde batetik eta musika bestetik, biak baloratu behar dira. Eta bakoitzak kantatu ahal du gura duena, gura duen hizkuntzan.

Bullied kanta irakurri dizugu *The Road* albumean, eskola-jazarpena sufritu zenuen. Esperientzia agertzeak hainbat forotan parte hartzera eraman zaitu.

Kanta egin nuenean ez nuen pentsatu horren ostean zer etorriko zen. Behar



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatuak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

☎ 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com



Azken hitza: Kantak indar

“Kantatzen dut, musika egiten dut, baina hitzetan ere zer edo zer esaten dut. Kanta batzuek mezu ahula dute, beste batzuk, aldiz, indartsuak dira. *The Road*-eko *Bullied*, *Numbers*, *Freedom*, *Izaren barnean*, adibidez. Horiei buruz ere gura nuke berba egin elkarriketetan”.

nuelako egin nuen, beste hainbat kanta bezala. Kanta batzuk gordeta dauzkat oraindik, ez zaizkidalako oso onak iruditzen, adibidez. Bullyingaren kanta egin nuen, youtubera igo nuen, eta laster etorri ziren galdezka, parte hartzeko eskeak eta deiak.

Bullyingaren kontra ikastetxeetan egiten den, egiten ez den lanari buruz baduzu esatekorik.

Institutuan gauden bitartean, eta eskola orduetan handik atera ezin bagara, irakasleen ardurapean gaude, eurek daukate ardura. Irakasleek ez dituzte ikas-

leak hezi behar, etxean egin behar den lana da hori, baina heziera hori etxetik ekartzen ez dutenei, momentua heltzen denean, baten batek esan beharko die zer edo zer. Eta momentua eskolan gertatzen bada, irakasleak esan beharko dio. Eskolan ikasten ez badute, kalean ikasiko dute, eta hori txarrago izango da.

Bullyingaren inguruan, institutuetan, eta ikastetxeetan oro har, ez dela ezer egiten esan izan duzu.

Oro har. Batzuek ukatu egiten didate, baina nire institutuan horrela izan zen, eta ez da ezagutzen dudan kasu bakarra. Ezagutzen ditudan kasu gehienetan ez da ezer egin. “Ez da egia”, esaten dute batzuek, eta nirea ez da egia absolutua, baina uste dut horiek baino egiaren zati handiagoa daukadala. Batean eta bestean berba egiteko deitzen didate, eta ni joan ahal naiz eta pentsatzen dudana esan, baina horrek ez du esan nahi, hala ere, egia absolutu hori daukadala. Nork bere modura bizi izan du bullyinga, nork bere esperientzia du: nik neurea. Kasu bakoitza ezberdina da, baina antzekotasun handiak dituzte.

Zerk du indar handiagoa, diskurtsoak, edo diskurtso hori kanta bihurtzen denekoak, *Bullied* alegia?

Biek dute indarra, non esaten duzun, zelan eta nori. Komunikazioa errazagoa da kanta entzuten dagoena, adibidez, benetan entzuten ari bada. Baina entzulea tabernan baldin badago, eta kanta han, urrun eta beste barik bezala entzuten badu, ez dago komunikaziorik. Dena dela, nik uste dut kanta bidez errazago helarazten dela mezua. Filmetan bezala, momentu berezietan hor da beti musika, sentimendua transmititzea errazten duelako. ■

www.bertsozale.eus

BERA
Kultur Etxea
Martxoak 18, 17:30

ANTSOAIN
Antzokia
Martxoak 19, 17:30

FINALAURREKOAK

JULIO SOTO	ENEKO LAZKOZ	IRIGO OLAETXEA	ANDER FUENTES "ITZURI"	KOTTE PLAZA	A LAZNE UNTXALO
XABIER TERRESOS	XABIER MAIA	IKER GOROSTERRAZU	SAIOA ALKAIZA	JOSU SANJURJO	MIKEL LASARTE

Txinatarren hedapen ekonomikoa

Azken hamarkadatan ezaguna egiten ari zaigu txinatarrek daramaten abiadura beraien garapen ekonomikoa. Izan ere, bide pragmatikoagori heldu zioten sistema kapitalistaren baitan eta emaitzak begi-bistakoak dira. Horretarako gobernuak protagonismo osoa du eta *Joint venture* eredua sustatu du, non txinatar kapital publikoak mendebaleko kapitalisten ekarpen ekonomiko-teknologikoarekin bat egin baitu. Hori guztia, langileria merke, diziplinatu eta kontsumo egarrira duena ahaztu gabe.

Duela zenbait hamarkada, txinatarrek enpresa publikoen bidez atzerritik lehengaiak eramaten zituzten etxean erabiltzeko. Orain, enpresa publiko horiek munduan zehar merkatu bila dabilta beraien ekoizkinak saltzeko, baita finantza soberakinak inbertitzen ere: 2016an 187.000 milioi euro inbertitu zuten atzerrian, 2015ean baino %65 gehiago. Halaber, teknologia berriak eskuratu nahi dute, ekoizpenari balio erantsi handiagoa gehitzeko.

Munduko merkatuetan lehiatzeko lagungarri izan zaio *Dumping* soziala deritzona, ekoizpen kostu apalak ahalbidetu baititu. Ondorioz, merkataritza balantzea positiboa izan du eta dibisa erreserba paregabeak izatera iritsi da, zeinen bidez gai baitira atzerrian edo zor publikoan inbertitzeko.

Finantza soberakin horien irteeretakoa bat Afrikan dago. Izan ere, inbertsio erraldoietako bat Etiopiako hiriburua, Addis Abeba, Djibutirekin trenbidez lotzeko izan da. Horrela, Etiopiak itsasora heltzeko modua izango du, nahiz bere irteera naturala Eritreatik pasatu beharko lukeen Itsas Gorrira heltzeko. Beste asmo bat da Indiako eta Atlantiko ozeanoak trenbidez lotzea.

Azpiegitura hauen eraikuntzan txinatarrek daramaten estrategia eta Euro-



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Euskal Herrian ere sustraiak ipintzen ari dira. Bere garaian jakin genuen Euskaltelek, gure diruekin eraiki genuen euskal enpresak, ZTE txinatar multinazional teknologikoari saldu zizkiola bere abiadura handiko sareak, Zamudioko industria-gunetik Hego Europari zerbitzua eskaintzeko

pako inperialistena arras desberdinak dira. Europarrek azpiegiturak egiten zituzten, baina itsas portuak meategiekin lotzeko, mehatza Europara ekartzeko. Txinatarrek, aldiz, trena abian jartzen dute, bertako teknikariak prestatzen dituzte eta mantenu lanak afrikarren

esku uzten dituzte. Finantzatzeko dirua Londresko interes tasaren arabera finantzen dute, lukurreriarik gabe.

Halere, txinatarren erronka ekonomiko handiena Europan presentzia izatea da eta horretarako estrategia ugari darabiltzate. Ezaguna zaigu Greziako Pireo portuan inbertsioak burutu zituztela. Espainiako Estatuan Madrilgo Espainiako Plazan Espainia Eraikina erosi zuten, baina erreformak egiteko baimenak zaildu zion alkateak eta bertan behera utzi zuten proiektua.

Kataluniari ere so daude txinatarrek. Izan ere, Bartzelonako itsas portuan inbertitu dute azpiegiturak hobetze aldera, 2016an Espanyol futbol taldea bereganatu zuten eta gaur egun 80 bat enpresa daude nazio horretan txinatar kapitala dutenak. 2015ean Espainiako Estatuan inbertitu zuten kopuruaren %50 Katalunian burutu zuten, herrialde paregabea delako Europar Batasunean (EB) sartzeko.

Euskal Herrian ere sustraiak ipintzen ari dira. Bere garaian jakin genuen Euskaltelek, gure diruekin eraiki genuen euskal enpresak, ZTE txinatar multinazional teknologikoari saldu zizkiola bere abiadura handiko sareak, Zamudioko industria-gunetik Hego Europari zerbitzua eskaintzeko. Horretarako, bost milioi ordaindu zizkion eta 133ko plantilla gorde, baita Euskalteli eta Jazzteli zerbitzua eman ere.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar Zubietako Erraustegian 212 milioi euro inbertituko dituela eta datozen 32 urteetan 1.000 milioi euroko zorra ordaindu beharko diogu gipuzkoarrok, FCCri lehia irabazita, nahiz horiek teknika eta segurtasun hobea eskaini. Haatik, Europan sustraitzeko bide oparoak irekitzen ari dira txinatarrek, Euskal Herria ere saihestu gabe.

Noiz ipiniko dugu osasuna negozioaren aurretik? ■

KiVa

Ez da auto marka bat ez eta zerga mota madarikatu baten sigla ere. Programa bat da, eskolako jazarpena aurreikusten eta murrizten laguntzen omen duena. Bullyng-aren kontrako jarrera aktiboa, non eskola esparruko oro inplikatur agertzen den: irakasleak, ikasleak, gurasoak, lorezainak eta sukaldariak. KiVa programak aurre egin nahi dio eskoletan ematen den indarkeria orori, berbazkoari zein fisikoari. Eta gure ikastolak abian jarri du programa hori.

Baina nago, deus gutxirako balio izango duela heziketa programa horrek, giza portaeraren berezko basakeriak arrastoan jartzeko. Gizakia berez eta senez gaiztoa den ustekoa naiz, animalia, alegia, arrazionaletik beste duena irrazionaletik. Ongia ikasi egiten da, ez da berezkoa, salbuespenak salbu.

Gizakia gizaki denetik ez da ezer aldatu. Elkar torturatu eta hiltzen jarraitzen dugu, sua asmatu aurretik ere.

Gizakia harroa da, koldarra, krudela, basatia, harraparia, gaiztoa, erasokorra eta mendeku zalea. Gizakia oldarkorra eta konpultsiboa da.

Portaera, jarrera, pentsaera, nortasuna eta izaera bera ere moldagarri diren ezaugarriak dira gugan, eta heziketa, morala, etika, filosofia eta erli-



Karlos Gorrindo

EUSKARA TEKNIKARIA

@kgorrindo

KiVa programak eskola jazarpena murrizten lagunduko du agian, eta horretan indarrak batu behar ditugu, jakina, baina ez du desagerraraziko. Ez, pertsonen arteko harreman sozialak errespetuan oinarritzen ez diren bitartean

jioa erabiltzen ditugu bideratzaile eta zuzentzaile gisa. Eta Ongia eta Gaizkia desberdintzen badakigun arren, pen-

tsatzen jarraitzen dut gizakiok gaiztoak garela sortzez. Hau da, gaizto jai, beltz eta ilun eta, gero, kulturak, heziketak, ohiturek eta arauak kolorea hartzen laguntzen digute, zeru hodeitsuan ostarteak legetxe.

Indarkeria matxistarekin gertatzen da. Eskolako jazarpenarekin.

Gizartea kontzientziatuko da indarkeria matxistarekin, baina berau ez da desagertuko, gizakiak bere burua kontrolatzen lanak izaten dituelako, animalia irrazionala ere badenez gero. Guztiz eboluzionatu gabeko animalia zibilizatua ere badenez gero.

KiVa programak eskola jazarpena murrizten lagunduko du agian, eta horretan indarrak batu behar ditugu, jakina, baina ez du desagerraraziko. Ez, pertsonen arteko harreman sozialak errespetuan oinarritzen ez diren bitartean. Eta deus gutxi laguntzen dio KiVa programari, esaterako, ikasle taldeak (gurean gertatzen den bezala) errespetu eza lotsagarria erakustea irakasleari, berdinen eta desberdinen arteko bizikidetzaren ezaugarri garrantzitsuena denean, aurrekoa aintzat hartzea. Programak, protokoloak eta dekalogoak ez dira txarrak izaten berez. Gizakia bai, ordea, teoria on guztiak hankaz gora jartzen baino ez dakielako. ■

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Sartu eta irakurri!

Antolatzailea:

AZKUE
FUNDATZIOA

Laguntzailea:

ARGIA

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra

200€ diru txekoa

ARGIA n kolaboratzeko aukera

KATEGORIAK

Kultura / Gizarte eta politika / Aisialdia / Zientzia eta teknologia

Kategoria bakoitzeko hiru finalisten blogak webgunean kontsultagarri.

blogetan.eus

Elizan, kanpaia...



Jose Inazio
Basterretxea

EHU-KO IRAKASLEA

Kontu zaila da –gaitza– gai abstraktuei eta erakunde inbertsonalei buruz baino, hezur-harraigizko pertsoneri buruz hitz egitea. Batez ere, gaiak tabu-itxura hartu baldin badu inoiz.

Gazteek sufritzen dituzten eraso sexualen heren-laurden bat gertatzen dira Elizako profesionalen esku: adin nagusikoak atsegindurik eta adin txikikoak mindurik. Neurriak aspaldi hartuak behar zituen Elizak, hainbat norbanakoren mina eta horrenbesteko morbo mediatikoa saihesteko.

Zein da arrazoia umeen organo sexualen kontura poztu eta alaitzeko? Zer gertatzen da adinez nagusi direnak adin txikikoen pentsura atsegin sexuala bilatzeko?

Izango da, ba, izango denez, erantzun bat baino gehiago. Jakina.

Baina, abusu sexualean bada uste hedatu bat erasotzailearen partetik, eta da besteak baino arrazoi handiagoaren jabe izatearena. Agintekeria, akaso. Abusotzaileak uste du arrazoi handiagoa duela berak inor bere gogoetara behartzeko, abusatua denak izan lezakeena baino gehiegikeriarik ez jasotzeko. Hartara, abusatuaren borondatea abusotzailearen mendekoa da erasotzailearen usterako.

Eta hori da arrazoia, seguru asko, Elizan bezala, kirol-aldageletan, eskoletan, eta familia barruko txoko ezezagunetan umez eta gazteez abusatzeko. Nagusikeria.

Idatzi diren hainbat testutan, derrigorrezko zelibatua aipatu izan da Eliza barruko gaitzaren

iturritzat. Abade katolikoek ezin dute bikoterik izan. Eta, argi dago errepresio sexualak ezin due- la fruitu onik eman egungo gizartean.

Aipatu ere, aipatu da ezen Lege kanonikoa izan daitekeela fenomenoaren beste atal bat arre- taz aztertzea. Ohitura baitu Elizak –armadak bezala– etxean bertan konpontzeko konpondu beharrekoak, epaitegi zibiletan egin ordez. Be- katuaren eta delituaren arteko mugak ez daude beti argi erakunde erlijiosoaren baitan. Eta hori konpondu beharra dago.

Elizak denbora beharko du afera argitzeko. Baina, kontua ezin daiteke luzatu *ad eternum*, zorneak hartuko baitu erabat zauria. Gardentasu- na exijitzen du gizarteak.

Abade izan, guraso izan, auzoko izan... adin txikikoak abusatzeko hemen eta hor, Elizan eta familian, eskolan eta kirol-taldean, dagoen arra- zoi komuna da umea izaki osotzat ez hartzeko ohitura: ez da inor gaztetxo, ez da ezer... adinez nagusia denaren menpeko da, haren gogaietara ibili behar duena.

Horregatik armatzen dira umeak gerretan, horregatik mutilatzen dira, horregatik meazuloe- tako lan izugarrietara kondenatzen, horregatik bortxatzen. Nagusien panpinak direlakoan, txo- txongiloak.

Norbaitek ordaindu behar ditu nagusien beldu- rrak, frustrazioak eta ezinak. Horixe da kontua- ren larria. ■

Umore eman gabe



Miren Artetxe

BERTSOLARIA

Umoreak umore izateko, igorlearen eta hartzailearen mundu ikuskera partekatua behar omen du. *Gutasun bat, bestetasun* ba- tek definitua. Gu ez-ezjakinak. Gu ez-emakumeak. Gu ez-baserritarrak. Ez-homosexualak. Ez-ijitoak. Eta jakinik ez dagoela umore neutrorik, testuin- guruaren baitan zein guk zein besteri egiten dion barre, horren arabera izango da umorea suber- tsiboa edo *statu quo*aren aldekoa, zapaltzailea ala askatzailea.

Ez gaitzen engaina, ordea. Beltzek izango dituz- te zuriei buruzko txisteak, baina, ezin esan txiste horiek arrazistak direnik, ez dutelako atzean men- detako egiturazko zapalkuntza historia bat. Bes-

terik da beltz talde batean dagoen zuria deseroso sentitu daitekeela txiste horien osteko barre-alga- ren artean. Umoreak horixe du, kamarada.

Zapalkuntza harremanak gurutzatu ere egiten dira, ordea. Bertakoaren eta etorriaren artean. Langilearen eta nagusiaren artean. Eta hor hasten da kontua korapilatzen. Hor koka liteke eztabaida.

Baina, zertarako egin saltsa hain mehe? Bote- reak erabaki du umore jakin bat iraingarria dela batzuentzat eta, beraz, onartezina denontzat. Atera du aniztasunaren eta elkarbizitzaren joke- rra eta orain barkamena eskatzea dagokionari dagokio eta ongi merezia du zigorra.

Ez zaigu umorea fintzea besterik gelditzen. ■

Gauzak maitatu daitezke?

Etxea hustu. Gainezka egiten diguten trasteez libratu. Loturak askatu. Modu minimalistagoan bizi. Halako kontsignak dira zorionerako errezeta berria. Garbiketa egiteak lekua sortu eta sentsazio ona uzten du. Baina nik ez dut nahi histeria horren presioaren mende bizi, bota nezakeen gauza ba-koitzagatik kontzientziaren har gaiztoa aditu. Kaos dosi bat onartu nahi dut nire etxean.

Gure auzokoak inoiz bukatzen ez den lana izaten du. Behar ez dituen gauzak kutxa batean sartu eta kalera ateratzen du kutxa; akaso ondotik pasatzen den norbaitek nahiko ditu berak alde batera uzten dituenak. Arau bati jarraitzen dio kutxan bukatuko duten gauzak aukeratzeko orduan: objektua esku artean hartzean, oraindik maite duela sentitzen badu, gorde egiten du. Osterantzean, agur! Banatzeko tenorea. Kontatzen duenagatik, hastea izaten da zailena. Gero, zirt-zart doa epaiketen segida. Gutxiago erosiko balu, ez luke horren sarri horrenbeste gauza izango botatzeko.

Estilo minimalista duen etxe batean sartzen naizenean, o, miresmena sentitzen dut. Hustasun dotore hori, eta osagarri bakoitza arta handiz aukeratua! Kontrako muturrean dago bildumazalea, baina haren espazioan ere erabat txundituta geratzen naiz, seduzituta ia, Walter Benjaminek *entziklopedia magikoa* deitzen duen horrek inguratzen nauenean. Bildumazaleari gauzak gertatu egiten zaizkiola esaten du Benjaminek. Eta erritmo sosegatuan bizi denez, atzetik joaten zaie, topo egiten du haiekin. Horrela, pieza berri bat ernetzen da bere begien aurrean, jatorrizko funtzioetik eta errealitatetik bereizten den zerbait. Ametsetik hurbil dagoena.

Bildumazaleak ere behin eta berriz hasi beharreko zeregina hartzen du



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

bere gain. Ez zigor gisa, Sisifok bezala, baizik eta beste aukerarik geratzen ez zaiolako. Objektuen jabetzaren bitartez, beren gauza-izaeraz hustu behar ditu hauek. Maitale-balioa eman behar die, erabilera-balioaren orde.

Badirudi maitasunak bizirik ez dauden gauzeekin ere lotzen gaituela. Beste norbaiten hitzak emango ditut hemen: Kamiseta zahar bat gordetzeko gai ez dena, nola izango da fidela pertsonekin? Ni neu ez dakit ikuspuntu honekin bat natorren, baina zer pentsatua eman dit. Beste gai askorekin bezala, zatikatura sentitzen naiz honekin ere. Ziur badirela harremani eusten ez dakitenak, baina etxea trastez goraino dutenak. Seguruenez, inguratzen gaituzten gauzeekin dugun harremanak zerbait esan nahi du. Gure etxeak nor garen kontatzen du. Objektuekin batera haragitzen ote da hein batean gure nortasuna?

Minimalismoaren mandamenduak ezin du denontzako izan. Nik onartzen diot bere alde erakargarria. Baina ahots saboteatzaile batek kontra egiten dio nire barruan. Gehienetan, nahiko genukeenaren eta egiten dugunaren arteko atalase batean flotatzen dugu, kontraesan eta azaldu ezinezko gauzen itsaso batean.

Parabola moduan irakur daitekeen pasadizo batekin bukatuko dut. Charles Dumont-ek, txikia bada ere, objektuek arima bat dutela esan zuen elkarrizketa batean. Édith Piaf-en kanturik ezagunena, *Non, je ne regrette rien*, konposatu zuen Dumont-ek. Harrokeriak hartu zuen batean, bere piano zaharra Probentzan zuen landetxera eraman, eta *Steinway* garesti bat erosi zuen. Laster konturatu zen, ez zutela askorik elkarri esateko. Bere balioa baino askoz gutxiagotatik saldu, eta piano zaharra berreskuratu zuen. Maitasun harreman bat zuen pianoarekin, eta ez zuen berriro abandonatuko. ■

ZORIONAK ARGIA!



OÑATI
dabilen herria

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1
Tel.: 943 78 04 11
www.oñati.eus

MOZALIK
EZ

Eskubide
zibil eta
politikoen
aitortza eta
errespetua,
Mozal
legeari ez!

ehbildu

*"Prentsa askea da
herriaren izpirituak
beti ernai duen begia."*
Karl Marx

ZORIONAK!


sortu
sortu.eus



ARGIA MOZALIK GABE

ISILTZEN DENAK



ZORIONIK EZ DU



Urtebetez Mozal Legeari eta haren izenean Espainiako Gobernuak ezarri zigun isunari aurre egin izanak emaitza garrantzitsua ekarri du. Kazetaritzarekin lotutako lehen auzian Mozal Legeak atzera egin du. Eskubide urraketen aurrean isilik ez geratzea hautatu dugunok, irribarre txikia ezpainetan, informatzeko eta eragiten jarraitzeko beste arrazoi bat irabazi dugu.



Axier Lopez

@axierL

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

“Si te mandan una carta, y no va perfumada, es del Gobierno Civil”. Kojon Prieto y los Huajalotes taldeko lagunek XXI. mendean abesten jarraituko balute, ziur naiz Carlos Urquijorekin oroitu liratekeela. Azken lau urteotan, Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkartzaren helegite eta isunak jaso dituzten ehunka euskal herritar, antolakunde eta udalak berarekin oroitu diren bezala. Egia esan, ARGIA ezustekoa izan zen, gure lana egitearen truke 601 euro eman behar genizkiola irakurtzea. Are gehiago, erabateko bakardadean PPK bakarrik babesten duen Mozal Legea erabiliz isunduko gintuela ikustea. Eta zer esanik ez, Euskal Herrikoa ezezik, Espainiako estatu osoan horrelako gutun *ederrik* jaso zuen lehen kazetari eta hedabidea ginela jakitean.

Euskarazko hedabide txiki eta independente bat Espainiako Gobernuaren salbuespenezko legediaren lehen jo-puntua. Iazko martxoaren 3a zen, *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren 13. urteurrenetik astebetetera. Argudio zaharberrituak. “ETAren menpe” aritzea lehen; “ETAren eta *Ospa* eta *Alde Hemendik* mugimenduen mehatxua indarrean egonik, polizia-agenteen eta beren familiaren segurtasun fisikoa arriskuan jartzea” txio baten bidez, orain. Egun Iberdrolaren izenean mintzo den Angel Acebes ministroak “euskararen eta herritarren eskubideen defentsan” zioen artean; “Broma hutsa da esatea Espainian arazo bat daukagula



adierazpen askatasuna edo manifestatzeko eskubideekin lotuta”, dio Kongresuan orain Mariano Rajoyk. Madrilgo jende inportantearen jarioa ondo konprenitu gabe jarraitzen dugu euskal kazetariok, antza.

Euskal hedabideon elkartasuna eta babesa ez dira urteetan aldatu. Pribilegiatuak gara kazetariok, kazetaritzaren aurkako erasoek gainerako herritarren aurkako urraketek baino zabalpen handiagoa izaten dute orohar. Baina arazoa kolektibizatzea izan da gakoa. ARGIAko lantaldeak isun bidegabea ez genduela ordainduko eta Mozal Legea desobeditzeko prest ginela lehen segundotik adierazteak azkartu zuen erantzun kolektiboa. Ondoren, euskal hedabide eta kazetarien erantzun paregabeak tran-

polin paregabea osatu zuen ordu gutxiren buruan albistea nazioartera salto egin zezan. Eta hala, ARGIA ezarrirako 601 euroko isun administratibo bat milaka kilometrotara dauden *The New York Times* edo Al Jazeera hedabideek zabaldu zuten. Une horretatik aurrera albistea nola biderkatzen zen ikusi genuen: Mexiko, Frantziako estatua, Errusia, Grezia, Italia, Irlanda, Australia eta abar. Gure historia partikularrerako geratuko dira ARGIA Espainiako Kongresuan entzutea, Onintza Enbeitaren eskutik, edo Jordi Evoleren *Salvados* saioan parte hartzeko gonbita. Azken momentuan atzera egin zuten ekoizleek.

Isiltzea erabaki zutenak ere izan ziren. Gutxi, baina arrain handiak. *The*



XXX

Guardian euskal herritar bati ezarritako zigorraren berri ematen ari zela, hementxo egunkaririk salduenak txintik ere ez zuten esan. Edo *El País*en inoiz argitaratu ez zen elkarrizketa, zeinean Madrilgo kazetariak galdetu zidan lehenengoa izan zen ea ezker abertzalearekin lotura edo harremanik ba ote nuen. Bi adibide ilun, jartzearren. Auzia irabazi dugunean ere jarrera bera izan dute.

Eleak/Libre-ko lagunei esker kale-ara ere heldu zen salaketa, Hekimeneko hedabideen bultzadaren ostean, EAEko Euskal Kazetarien Elkarteak bidea ireki zuen, aurrena Espainiako Estatuko kazetari elkarte gehienek gurekin bat egiteko eta hortik, Europa mailako Mugarik Gabeko Erreportariak, Amnistia

Internazionala edota mundu mailako gobernuz kanpoko 100 elkarte biltzen dituen *International Freedom of Expression Exchange* taldeak gure isunaren eta Mozal Legearen aurka hitz egiteko.

Legea egiten den lekura legea ez betetzeko proposamen batekin azaldu ginen. Lasarte-Oriako gure egoitzan nagusi den eromen zoragarriaren adibidea da. Ate birakarien bultzadak zorabiatutako politikari ohiak bezala, lanak izan genituen gure txikitasunean handi ez sentitzen kasu egin zigutenean. Mozal Legea ez betetzeko konpromisoa Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Nafarroako Parlamentuak begi onez ikusteaz gain, Polizia bat kontrolatzen duen Gasteizko Legebiltzarrak ia aho batez gure proposamena onartu zuen.

Tamalez, denborak ARGIAren proposamenaren aurka bozkatu zuen bakarri eman dio arrazoia. "Legez besteko proposamenak zentzurik gabe husten ari zarete, oso ondo dakizuelako -Carmelo Barriok EAJ eta PSE-EEko ordezkariengan begirada iltzatzearekin batera- gaur onartu duzuen ez duzuela beteko". Orduz geroztik, Ertzaintzak 2.857 aldiz eman dio arrazoia popularrari eta Beltran de Heredia barne sailburuak behin: "Gu legea betetzeko gaude" soil batez.

Zientzia politikoetako irakasleak "Parlamentuan esandakoa sarri Parlamentu barruan geratzen dela" azaldu zuen egunean ez ginen klasera joan. Eta, herabe, sinetsi genuen nahikoa izango zela herritarren, gizarte eragileen, alderdi po-

litikoen eta parlamentuaren gehiengo indar polizialen jarrera aldarazteko.

Zeren aurrekari?

Isuna jarri zigutenetik, kazetari elkar- teek eta nazioarteko eskubideen aldeko eragile garrantzitsuek esandakoari entzungor egin dio Gobernuak. Espainiako Arartekoari –Soledad Becerril popula- rra– PPko militantea izatea ere ez zaio lagungarria suertatu, eta ARGIAren isu- na indargabetezko eskaerari muzin egin zion Rajoyk. Baina hara non, epaiketa egiteko sei egun falta zirela, atzera egi- tea erabaki duten. Isuna indargabetezko forma arazoak argudiatu ditu Urquijo- ren makila hartu duen Javier de Andre- sek. Auziaren mamiari hozka ez egiteko, 'marroia' gaintetik kentzeko ohiko ar- gudio judizialeko bat erabiliz. Justi- zia egitearekin eta eskubideak bermatzearekin baino erabakiak unean uneko egoera politikorekin lotura duela inork ez du zalantzan jartzen. Ez dute Mozal Legea eta Polizia grabatzeko eskubidea orain ikustea nahi epaitegietan eta, mihi gaiztoen arabera, PSOE, EAJ eta PPren arteko elkarriketak goxo jarraitzeko gure kasuak ez zuen laguntzen.

Badakigu ez dela aurrekari juridikoa izango, sakoneko gaiari iskin egin diote- lako. Ez dituzte bertan behera utziko az- ken hilabeteetan etxetik oso urrun joan gabe, argudio gabezi bera ala handiagoa duten zenbait zigorrrek.

Mozal Legea bide judizialek geldia- razteko saiakeraz aparte, urtebeteko istorio honen amaierak badu ifrentzu politagorik. Nahi izanez gero, aurrekari izan daitekeena. Ez isildu izanaren on- dorioz, irabaz daitezke argudioz jantzita eta txikitasuna muga beharrean akuilu hartuta, hedabide independenteen eta herri mugimenduen hauspoari esker. Gaur egun ere protestatzea merezi due- la esateko adibide izatea nahi genuke, autozentsuraren aurkako txerto, kaze- tariok izan ez gaitezen gure eskubideei uko egiten diegunak. Espazio publikoan funtzionario publikoek egindako lana- ren berri ematea ezin da inola ere delitu izan. Eta Mozal Legea eskura edukita ere, erakutsi dugu posible dela boterea- ri muga justuak jartzea.

Oinek ukitzen duten lurraren arabera pentsatzen du buruak. Egune- ra zabaltzen ari den ARGIAren komuni- tatea lurzoru ederra da edonora salto egiteko. ■

EAJ ETA PSOE-REN ERREFORMA SAIOAK “LEGEA BERDIN UZTEKO”



Xabier Letona

@xletona

EAJk eta PSOEek Herritarren Segurtasu- nerako Legea –Mozal Legea– errefor- matzeko egin dituzten proposamenak aztertzen dira ondorengo lerroetan. Eta Eleak-Libre erakundeak lege honen aurka egiteko bideratuko duen ekimena.

No Somos Delito Espainiako Estatuko elkarteak egin du EAJren eta PSOEren proposamenen azterketa: “Legea aldatu nahi da, baina funtsean ezer aldatu gabe eta, gainera, herritarren segurtasunari buruzko eztabaida sakona saihestuz”.

Haien ustez, PSOEren proposamenak Mozal Legearen eta Corcuera Legearen (1992) txarrena biltzen du, kontzeptu ju- ridiko zehaztugabeak eta orokorregiak erabiliz, eta herritarra defentsa barik utziz. EAJri dagokionez, plataformaren esanetan, greba eskubidea eta atzerri- tarren eskubideak zabaltzeaz mintzo da azalpenetan, baina ondoren ez ditu kon- tzeptuok garatzen artikuluetan.

“Herritarren segurtasunaz EAJk duen ikuspegia oso kezagarria da: maila be- rean jartzen ditu oinarriko eskubideen babesa eta ondasunena. Haien idatzian, eremu publikoa ‘erabilera eta gozamen publikorako’ esparrua da, eta ez eskubi- deak bizitzeko espazioa. PSOEek eta PPK ikuskera bera dute, eta herritarren segur- tasuna ordena publikoaren mantenua- rekin nahasten dute”. Bien proposame- netan Mozal Legearen oinarrietako bati eusten zaio: polizien esanak froga gisa balioa duela. Horrekin, praktikan, defen- tsarako eskubidea galtzen da.

Manifestazioa eta bilkura eskubidea- ri dagokienez, PSOEren proposamenek oso murriztaileak jarraitzen dute izaten. EAJren testuan atak irekitzen zaizkie baimen gabeko bilkura bapatekoei, bai- na beti ere larrialdiko kasuei erantzuten badiete. Horrez gain, “EAJK migranteen kanporatze ‘beroak’ –berehalakoak– mantentzen ditu, eta hori txirotasunaren kriminalizazioa da”.

Hobekuntzak ere badira proposame- netan, “baina gutxi”: Hainbat kasutan

PSOEek isunak txikitzen ditu. Hoberako aldaketa esanguratsuen a EAJrena da, hainbat kasutarako isunak ezabatzea proposatzen baitu, esaterako, segurtasun indarren argazki ez baimenduak argitara- tzeagatik, Kongresu eta Senatu aurreko bilkurak egiteagatik edota kalea oztopa- tzeagatik.

Eleak-Libre Mozal Legearen aurka

Eusko Legebiltzarrak 2016ko ekainaren 22an Mozal Legea ez aplikatzeko kon- promisoa hartu bazuen ere, Mozal Legea 8.087 aldiz erabili du Ertzaintzak 2015an eta 2016an (uztailetik urte amaierara 2.857 aldiz). Estefania Beltran de Heredia, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailbu- ruak legea aplikatzen jarraituko duela esan du.

Nafarroako Legebiltzarrean legearen aplikazio datuak eskatuko dira eta bere aplikazioa bertan behera uztea. EAEko Legebiltzarrari hiru neurri eskatuko zaiz- kio: bat, Mozal Legearen aurkako jarrera berrestea; bi, lege honek berriz norbait zigortzen badu, salaketa publikoa egitea eta zigortuari babesa adieraztea; hiru, le- gea ez aplikatzeko konpromisoa berres- tea.

Zer egin Mozal Legean oinarrituta zigortzen bazaituzte? Eleak-Librearen telefonoa eskainiko da, lurralde bakoit- zean elkarrekin elkarlanean ari di- ren abokatuen telefono zenbakiak eta e-posta bat ere bai: mozalikez@riseup. net. Zigorra errekurritu edo desobedi- tzea erabakiz gero, elkarrekin aholkulari- tza emango dio zigortuari. Herritarren eskubideak zein diren azalduz, mugimenduen errepresioaren aurkako Gida Liburua kaleratuko du. “Polizia Grabatu” ekimena ere abian jarri du –lehen hiru bideoak sarean dira jada–, Ahotsa, Topa- tu, Hala Bideo, Ekinklik eta ARGIArekin batera. Azkenik, eskubide zibil eta poli- tikoak bortxatu dituzten polizia ekintza guztien datu base bat ere osatu nahi du elkarrekin.

• 2017ko martxoan eguneratua •



MOZAL LEGEA

BATEZ BESTE 88 ZIGOR ASTEAN

ETA ERTZAINITZA

2015, APIRILA

2016, ABENDUA

8.087

ALDIZ

APLIKATU DU LEGEA EAE_n

2016an
5.448



2.639
2015ean



2016KO EKAINAREN 22AN

LEGE BILTZARRAK

MOZAL LEGEA

EZ APLIKATZEKO KONPROMISOA

HARTU ZUENETIK

2.857

LEGEAREN
ARTIKULUA

ZER ZIGORTZEN DUEN

ERTZAINITZAK EZARRITAKO ISUN NAGUSIAK

36.16

Legez kanpoko drogen salerosketa eta kontsumoa

3.281

37.04

Segurtasun indarrei "irain egitea edo errespetu faltaz" zuzentzea

1.467

36.06

Poliziarri desobedientzia, identifikatzeari uko egitea...

941

36.10

Arma debekatuak eramatea, erakustea edo erabiltzea

894

36.03

Eremu publikoa oztopatzea, desordena sortzea

553

37.01

Elkarretaratzeak kalean edo toki publikoetan

222

37.13

Hiri-altzariak edo ondasun publikoa kaltetzea

172

37.07

Besteren eraikin, etxebizitza edo egoitzak okupatzea

136

36.04

Edozein funtzionario publikoren jarduna oztopatzea

94



ARGIA

INFOGRAFIA: Garbine Ubeda Goikoetxea eta Axier Lopez. ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Barne Saila.

ESPASIO PUBLIKOA ETA ADIERAZPEN ASKATASUNA



Adierazpen askatasuna vs. Garbiketa ordenantzak

KALEA GUZTIONA AL DA?

Errepide bazterrean jarritako pankartak ongietorria ematen die gidariei: “Zumaiara sartzen ari zara, mantsotu zure adierazpen askatasuna”. Kalea Guztiona Da ekimeneko kideek jarria da, beste hainbat gauzarekin batera, kartel, pankarta eta muralak arautzeko Udalak onartu nahi duen ordenantzarekiko desadostasunez. Udaletik eztabaida bera absurdutzat jo duten arren, Urola Kostako herri honetan adierazpen askatasunaren aldeko borroka lokala abiatu dute. Ez dira bakarrak, herri askotan ari baitira onartzen halako ordenantzak..



Lander Arbelaitz
@larbelaitz

Larunbat arratsalde da. Margoak jaso berri, kide gehiagorekin batera egin duten muralaren aurretik igaro dira Pello Enparan, Lore Txapartegi eta Bittor Bengoa zumaiarrak. “Dotore geratu da”, bota du batek. “Oso dotore, pena ematen du ordu gutxitan ezabatuko dutela pentsatzeak”, erantzun besteak. “Mural guztiekin esaten dugu gauza bera”, borobildu du hirugarrenak. Pareta berean hamar hilabetean egin duten 28. murala da.

“*Deskonektatu IbÉrdrola*” dioen horma-irudi horia egin dute oraingoan, nuklearren aurkako ikur irribarretsuarekin. Pozik jaso dituzte kalean pasa diren herritarren begirada eta komentario konplizeak, argazkiak eta hurrengoetarako gomendioak. Aurretik egin izan dituzte muralak emakumeen aurkako bortxaren aurka, Mikel Laboaren, Imanol Urbietaren eta errefuxiatuen omezez edo euskararen aldekoak, batzuk aipatzearen, artistikoagoekin batera. Azken xehetasunak ongi zaindu dituzte oraingoan ere, nahiz eta badakiten ziurrenik Udalak ezabatu egingo duela bihar goizean. Hala izan da. Igande goizaldeko 7:00etan, marroi kolorez pintatu dute bueltan pareta garbitzaileek.

“Ordenantza hau ez litzateke behar denok pertsonak bagina, espazio publikoan gure etxean egiten duguna egingo bagenu, ez litzateke behar eta elkarritz-

keta hau alferrikakoa litzateke”, uste du Zumaiako zerbitzuetako zinegotzi Jon Iraolak. *Jokabide zibikoari buruzko eta bide publikoaren erabilera, okupazioa eta garbiketa arautzeko ordenantza* izeneko proposamena ez da kartel eta pankartei soilik zuzendua, obra-eremuetako garbiketa-betebeharrak, akanpatzeko debekua, taldoen erabilera edo Udal-tzaingoarekiko tratua zaku berean doaz.

Kaleak eta gorputzak jomugan

Lekeition harrituta ikusi zuten Potxuak Martxan talde feministako kideek, hondartzan egin zuten murala ezabatu egin zutela 2016ko uda hasieran. Agertokia partekatzen zuten presoen aldeko horma-irudiak eta Mikel Laboarenak bere lekuan jarraitzen zuten. “Hondartzara joatea eta gorputza biluzteko ikaratan egotea ere prekariedade da. Soldatetik haratago, gorputz prekarieak gara, eta horregatik marraztu genuen emakume ahaldundua”, azaldu du Uzuri Aboitzek.

Hilabete pasatxo nork ezabatu zuen galdezka ibili ostean, Udalarekin egingako bilera batean baieztatu zuten honen eman zuela agindua. “Oso arrazoi txarrak eman zizkiguten, batez ere, gure murala ez zetorrela bat beren *irizpide paisajistikoekin*, eta besteak ez zituztela ezabatu diru faltagatik, baina ezabatu egingo zituztela”. Horrez gain, oroitzen

du udaletxetik esan zietela artista bat kontratatu eta emakume arraunlarien mural bat egingo zutela beste horma batean, noiz eta garai hartan oraindik emakume arraunlarien trainerarik ez zegoen herrian. “Aurpegi garbitze itzela”.

“Presoekin ez zirela ausartu eta Mikel Laboak kulturalki ez diela enbarazurik egiten ondorioztatu genuen, gurekin ausartu zirela”. Kalea eta gorputzak, biak territorio erasotuak direla eta biek izaera politikoa dutela nabarmendu zuten. “Bietan esaten digute nolakoak izan behar garen, nola erakutsi behar garen, modu erakargarri eta baketsuan aurkeztu behar gara. Udatiarrei begira egindako herritik asko zuen debekua”. Hurrengo egunean *Alkateak mural hau ezabatu dau* idatzi zuten ezabaketak utzitako zuloan, sarean zabalkunde handia lortuz, batez ere umore kutsuko meemekin. Hurrengo egunerako ezabatuta zegoen berriro.

Lekeitioko eragileak deitu, atxikimendu kanpaina abiatu zuten eta uztailean, egun argiz, berriz margotu zuten mural originala. “Udalari baimenik eskatu gabe egin genuen, herritarren baimena genuela ikusten genuelako. Herriaren zilegitasuna. Sortu genuen iskanbilarekin ez dira berriro ausartu kentzera”, dio pozik. “Ikusiko dugu datorren uda aurretik berriz kentzen saiatzen diren”.

Baimena eskatu behar

“Behin eta berriz ezabatzen dizute margolan bat, sinatuta ez dagoen dekretu batengatik. Hasieran frustrazioa eragiten dizu, gero irribarrea, zurearen gainetik margotzen dutenean, arrazoiak ematen baitizute eta hala jarraitzea elikatu”. Kalea Guztiona Da-n Koldo Landaluze da *taldeko artista* Zumaian. Berak egiten ditu muraletako marrazkiak. “Oso modu osasuntsua da kalea animatu eta koloreztatzeko. Beraiek gatazka ikusten dute, nik dibertsio subertsiboa”, dio.

Ondorengoa da 2016ko otsailaren 22an Udaletik prentsara bidalitako oharren hasiera: “Zumaiako Udalak jakinarazi du, hemendik aurrera herriko eremu publikoetan jartzen diren kartel eta pankarta guztiak kentzeko erabakia hartu duela, edozein delarik hauen eduki, mezu, jatorri edota helburua”. Erabakiaren berri prentsaren bitartez izan ostean egindako deialdi irekiaren ondorioz sortutako eragilea da Kalea Guztiona Da, erabat intergenerazionala, haur, gazte zein jubilatua aritzen dira horma margotzen. Herriko 30 elkartetik goraren eta ELA, LAB, CCOO eta ESK sindikatuen babesarekin, kalea adierazpen askatasun gune gisa aldarrikatu eta “Mozal Ordenantza” borrokatzen ari dira. *Alkateak kartel hau debekatu du* edo ildo berean planteatutako euskarriekin gaia sozializatu ostean, azken hilabeteetan Zumaia erdigunean dagoen Erribera kaleko paretak batean ari da jokatzeko mugimendu horren eta Udalaren arteko soka-tira. Herritarrek murala egin, instituzioak hurrengo goizerako ezabatzea langileak bidali. Behin eta berriro, ia urtebetez.

“Inguruko udalerriek halako ordenantzaren bat onartua dutela ikusita, Zumaian ere beharrezkoa zela pentsatu genuen. Ikusten ari gara turismoa gora egiten ari dela Zumaian, eta kanpotar jende asko etortzen dela eta horrelako ordenantza bat beharrezkoa da”, dio Iraolak Udaleko bere bulegoan. Kartelak egunero kentzen ari badira ere, ordenantza hozkailuan dago lehen asmoak azaldu eta urtebetera. Arrazoiak galde-tuta, zera dio Iraolak: “Hainbeste gauza daude egiteko, ez gara iritsi. *Standby* egoeran dago”.

“Herriko zikinkeraren aurka zeudela esanez hasi ziren. Guk erantzun genien aitzakia zela, gu ere zikinkeraren aurka gaudela, ez gaudela ados jendeak kalean pixa egitearekin adibidez. Baina noski,

hori ordenantzaren atal bat da, 17. kapitulu madarikatu horrek, ordea, pankartak, kartelak eta muralak debekatu nahi ditu”, dio Pello Enparanek. Hori kendu dezatela eta konponbidea herritar eta eragile guztiakin adostua izatea eskatzen dute. “Guk ez diogu zikinkerari beraiek ematen dioten esangura ematen, beraientzat zikina pankartetan dagoen mezua da, zikina al da emakumen aurka bortxa salatzea, preso politikoen eskubideak edo lan baldintza duinak eskatzea?”, dio. Jon Iraolak oroitu du Udalak 22 panel jarri dituela herrian eta bertan jar ditzaketela kartelak. Ez daude pozik Kalea Guztiona Da-ko kideak. Batetik, herriko panelek ez dutelako pankarten, muralen eta pegatzen debekua gainditzen, eta bestetik, inorekin adostu gabeko neurria izan dela diote. “Jendeak irakurtzeko egiten dira kartelak, eta beraz, jendea dagoen lekuetan jarri behar dira, bestela zertarako egin? Udalak berak oharra etxeko atarrietan jartzen ditu”.

JON IRAOLA,

ZUMAIKO UDALA:

“Baimenak eskatu, paretak aukeratu eta margotu egiten dira. Hor ez dago arazorik. Guk kontrolatu? Ez, ez”.

BITTOR BENGUA,

KALEA GUZTIONA DA:

“Politika egiteko era zaharra, gutxi batzuek erabakitakoa herritar guztiei inposatzeko politikaria dugu jopuntuan”

Kontrola ala zentsura?

“Gu ez gaude muralen aurka, baina egin behar dena da proiektu bat aurkeztu eta baimena eskatu”. Mural edo pankartak jartzeko baimena eskatu behar izatea ala ez, hor dago gatazkaren korapiloe-

tako bat. Kontrola salatzen dute Kalea Guztiona Da-ko kideek. “Inondik inora”, dio Jon Iraolak. “Guri etorriko balitzaigu elkarte bat, proposamen zehatz batekin, baimen baten eske, beste kontu bat litzateke. Emakumeen Foroa egitean, ia urtero egiten dira muralak. Baimenak eskatu, paretak aukeratu dira eta margotu egiten dira. Hor ez dago arazorik. Guk kontrolatu? Ez, ez. Ez du zirikusirik”, dio. Udalak mahai gainean jarri duen ordenantza garbia da dena den, “kirol, arte nahiz kultura arloko entzute handiko gertakizunen” salbuespena kenduta, kartelak, pankartak eta horma-irudiak horretarako baimenik ez dagoen guneren batean jarri edo egin nahi izanez gero, arduradunaren identifikazioa, jarri nahi denaren kokalekua, tamaina, itsatsita egongo den denbora eta kartelaren edukia aurretik aurkeztu beharko dira. Baimena eman edo ez Udal Gobernuak erabakiko du.

“Kontrola bilatzen dugula irudikatu nahi izan dute *a bonbo y platillo*”, dio Udaletik Jon Iraolak. “Denok izan behar genukeena izango bagina, zentzu komuna da ezin dugula kaletik joan nahi duguna margotzen”. “Herritarrek margotzen eta instituzioa ezabatzen. Politika egiteko era zaharra, gutxi batzuek erabakitakoa herritar guztiei inposatzeko politikaria dugu jopuntuan”, dio murala egin berritan Bittor Bengoak.

Eragile guztiei berdin aplikatzeko?

Iazko martxoan garbiketa ordenantza onartu eta aplikatzen hasi zen Arrasateko Udalak. Prentsa oharrez adierazi zuten, “ez du debekurako helbururik, herritarrei herri atseginago eta garbiago bat eskaintzea da Udalaren nahia eta zeregina”. Eragileekin hitz egin arte moratoria eskatuz *Mozal Ordenantza Ez* plataforma sortu zuten hainbat herritarrek. Ez zuten gelditzea lortu, ple-noan onartu baitzuten EAJ eta PSEren botoekin.

Berriz biltzen hasi dira orain hila-bete gutxi. Herriko eragile guztiei ez zaiela ordenantza berdin aplikatzen ikusi dute, Aizpea Otxandianok dioenez. “Hainbat eragile soziali kartelak edo pankartak berehala kentzen dizkieten bitartean, beste batzuekin ez dute aplikatzen. Orain gutxi zirkoa etorri zen Arrasatera eta kale-argi guztietan panelak jarri zituzten baimenik gabe, edo ordenantzan errotondetan kartelak

jartzea debekatzen duen arren, Udalak berak ez du bete, bi kasu aipatzearren. Ikusten dugu ordenantza hau erabiltzen ari direla, batez ere, eragile jakin batzuei kartelak kentzeko”.


Arrasateko Udalak kartelak jartzeko paretan erreferentzian eskultura bat jarri zuenean, “Mozaldun herri demokratikoa” mezuarekin agertu zen *street art*-etik asko zuen Ernairen salaketa ekintzak. “Herriko talde eta eragileekin batu eta kartelak paneletatik kanpo jartzeko mantentzeko lanean ari dela kontatu digu Otxandianok. Norbaiti gai horrengatik isunik iritsiko balitzaio, abisu emateko eskatzen ere ari dira, gaiari jarraipena egin nahi baitiote. Udalak ez du isunik jartzeko pausoa eman oraindik, baina ordenantzak 250 euro artekoak aurreikusten ditu kartelak eta pankartak baimendutako lekuetatik kanpo jartzeagatik edo garaiz ez erretiratzeagatik. 1.000 euro arteko zigorra, pankarta “iraingarriak” jartzeagatik.

Geroz eta herri gehiago

“Beasaingo Udalak paretetan kartelak jartzea debekatu du, eta horretarako Kale Nagusian hainbat panel jarri ditu. Ez direla nahikoak erakutsi du aste bateko kartel pilaketak”, hasten da Ander Jiménezek 2017ko otsailean *El Diario Vasco* egunkarira bidalitako gutuna (ez dago sarean irakurgai). “Espazio publikoaren erabilerak eztabaida soziala merezi duela uste dut. Debekatzen ari dira kultur ekitaldien, aldarrikapen politikoaren eta zientziaren dibulgazioan laguntzeko kartelak debekatuta, herritarrek parte-hartze politikorako duten oinarritzko eskubidearen adierazpenak”. Artikuluan gogoratzen du herriaren erdialdean ondorengoak daudela: “Tabakoaren edo edarien errotiluak, hurrek erreferentzi gisa hartzen dituzten emakume maniki erdi-anorexikoak, horrek osasun publikoan duen eragina-ekin, alderdi politiko baten logo erraldoia haurrak jolasten diren Iturralde

Goienak ateratako lehen argazkian ikus daiteke Arrasaten kartelak jarri ohi ziren paretan Udalak eskultura jarri ostean Ernaik gehitutako salaketa.

Bigarren eta hirugarren argazkietan, Lekeition Potxuak Martxan talde feministako kideek murala ezabatu izana salatzen egindako margoa, eta ondoren, berriz ere egindako horma-irudia.





**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa - Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

parkearen ondoan, baliabiderik gabeko jendea etxetik botatzen duten bankuen panelak...". Neurri hau atzera botatzeko eskatuz amaitzen du. "Kaleak espazio komuna dira".

Bilbo, Donostia, Iruñea, Gasteiz, Zarautz, Sorraluze, Portugalete, Errearteria, Pasaia, Eibar, Ordizia, Altsasu edo Bergara dira antzeko ordenantzak onartuta dauzkaten herri batzuk. Borondate politikoa arabera aplikatzen dela ondoriozta daiteke, herri batzuetan, ordenantza izan arren ez baita aplikatzen, eta beste batzuetan malgu jokatzen den

bezala, beste batzuetan zorrotz egiten da. Burlatako kasua azpimarragarria da, 2014an UPNk, PSNk eta PPK jarritako "Mozal ordenantza" atzera bota baitute Burlata Aldatuz eta EH Bilduk, Ezkerraren babesarekin. Beste herri askotan ez da halako ordenantzarik.

Borrokak berrasmatzeko aukera

"Egoera politiko berri honetan, bote-reak jakin du ohiko protesta moldeen aurrean egokitzen eta manifestazio, kontzentrazio, prentsaurreko eta ohiko kartelen eraginkortasuna txikitu da. Kalearen erabilerari buruzko borroka hau aukera ederra da gure burua birplanteatzeko eta esperimintatzeko", dio Kalea Guztiona Da-ko Axier Lopezek. "Errazenera jo beharrean, egin dugun guztian saiatu gara bitartekoei eta mezuei beste buelta bat ematen, umorea eta zorroztasuna galdu barik".

Etika eta estetika kontua dela dio Koldo Landaluzek. "Puntu konkretu batekin, Erribera kaleko horma-irudiarekin, gertatzen ari den guztia azaltzea da gakoa. Ezaba dezatela, berriro egingo dugu".

Lekeition ere, ohiko protesta moldeetatik harago joateko baliatu dute aukera. "Umorea eta tinkotasuna garrantzitsuak izan ziren, gauzak beste era batera azaltzeko. Ipurdi bistan geratu ziren", dio Uzuri Aboitzek.

Politika egiteko moduak

"Gure borroka ez da alderdikoa -dio Axier Lopezek Zumaian- eta pedagogia lana egiteko balio behar du, Zumaiaetik harago ere erabiltzeko. Leku askotan aplikatu dituzte mozal ordenantzak, eta batzuetan ikuspegi alderdikoitik borrokatu den arren, ez da sortu adierazpen askatasuna eta kale erabileraren aldeko argumentu sendorik", dio. "Berdin da EAJ ala EH Bildu egon, espazio publikoa eta adierazpen askatasuna lantzen duen inor ez badago, mozal ordenantzen ikuspegi debekuzaleari aurre egiteko argudiorik gabe ezkerren dira, baita ustez aurka dauden ezkerreko alderdiak ere".

"Hor dauden artista batzuek aurretik ez nituen sekula ikusi kalean muralak egiten. Kasualitatez orain hasi dira zumaiaarren bihotzak ukitu nahian", dio Jon Iraola Zumaia Udaleko zerbitzuetako zinegotziak. Mugimendu honek gaia Erribera kaleko paretara bideratu duen arren, Udala ez dagoela muralen aurka dio eta hauek egindako batzuk

"oso politak" direla dio. Mahai gainean duen mural eta graffiten liburu hartuz aipatu du eztabaida hasi zenean enpresa batzuekin harremanetan jarri zirela herrian graffitiak eta muralak egiteko. ARGIAK jakin duenez, ordea, Euskal Herriko graffitigile ezagunetako batek behizat, herriko polemikaren jakitun, ez zuela parte hartuko erantzun zien. Ekimen hau ere geldituta dago.

"Guk pertsona gisa ditugun askatasun guztiak ez direla mugagabeak. Adierazpen askatasunagatik ezin ditzut tiro bat jo, potroetatik ateratzen zaidalako. Denak du aterki bat, eskubide guztiak, non, apur bat, mugatu egiten diren", dio Iraolak. "Azkenean dena dago arautua bizitza honetan. Gai honi eman behar ez geniokeen beste dimentsio bat ematen ari gara eta iruditzen zait ez genukeela ezta elkarrizketa hau izan behar. Perfektuki asumitua behar luke ezin zarela kaletik joan gauzak idazten. Eta erabat ados gaudela ekimenaren lema-ekin: Kalea Guztiona Da. Noski guztiona dela. Horregatik Udalak arautzen du kale hori, guztiona delako. Eta bilatuko dugu kontsentsu maximoa ordenantza hori ateratzeko". Gaia nora doan galde-tuta, ondorengo erantzun du: "Udalak legegintzaldi honetan ateratzea da helburua, noski. Kalea Guztiona Da-koak gurekin esertzen badira hitz egitera, argituko dugu nora doan gaia. Ez dakit nora goazen. Udal langileek murala ezabatzen jarraituko dute". Kalea Guztiona Da-ko kideek "Udalaren zurikeria" salatu dute: "Urtebete bilera bakarria egin dute eta han azaldu ziren herritar guztiak oso kritiko hitz egin zuten Mozal Ordenantzaren aurka. Parte-hartzea eta elkarbizitza hitzak bolo-bolo erabiltzen dituzte, baina urtebetez Zumaian sufritzen ari garen debekuak alderdi bereko lau politikarien artean adostu dituzte".

"Hemen nik agintzen dut da sakonean dagoen logika, kontrol soziala eta egoskorkeria", haserretzen da Bittor Bengoa. "Sindikalista naiz, legeen erreformen bitartez sindikatuen lana oztopatu dute, eta orain mezuak *de facto* debekatu dituzte. Ezin duzu zure lana azaleratu, aldarrikapenak, enpresa puntual baten arazoak, despidoak, hildakoak... edo zer jartzen duzula hurrengo egunerako kenduta dago. Baimena eskatu behar diozu sindikatu bezala botere politikoa-ri pankarta bat jartzeko -galdetzen du-. Baina zer da hau?". ■



Sendagai arrastoak ibaietan

ASSAR-CC BY SA

ETXEKO BOTIKINA, KUTSADURA ITURRI



Asier Arrate Irukieta
@AsierArrate

Herrialde garatuetan, gizartea zahartzearekin batera besteak beste, izugarri hazi da sendagaien erabilera. 1990etik 2007 arte medikamentu salmenta laukoiztu egin zen Europar Batasunean, 48.000 milioi eurotik 214.000 milioira. Gizartea zahartzeak goranzko joera mantenduko du. Botika kontsumo masiboak eztabaida ugari ere piztu du, eta gizakiengan izan ditzakeen ondorioak ikertzea eragin du. Sendagaiek inguru-

Azken hamarkadan egindako ikerketek azaleratu dute ibaietan aurkitutako sendagai arrastoek animalia eta landareengan dituzten ondorio kaltegarrien arazoa. Ikertzaileak larrituta daude uretan nahastutako kutsatzaileen eta medikamentuen nahasketaren epe luzeko esposizioarekin.

menean duten eragin kutsatzailea aztertzeke, ordea, ia ez da ikerketarik egin, baina egin direnek erakutsi dute arazoa egon badagoela: kutsaduraren ondorioak agertzen hasi dira jada.

Ibaitako uretan agertzen diren sendagai arrastoek hiru jatorri dituzte. Batetik modu okerrean baztertutako medikamentuak daude –zakarretara edo zuzenean komunera botatakoak–, bestetik industria farmazeutiko eta osa-

sun zentro handien isuriak, eta hirugarrenik gizakiok iraitzitakoak. Izan ere, gure gorputzak ez ditu medikamentuen osagai guztiak xurgatzen; iraiizkinen birtartez estolderietara pasatzen dira eta hortik erreka eta ibaietara. Erresuma Batuko Chemtrust erakundeak 2014an kaleratutako *Sendagaiak ingurumenean: handituz doan mehatxua pertsona eta animalientzat* txostenaren arabera gizakiok hartzen ditugun botiken

Betelu®
Euskal Herriko Ura
Ur Mineral Naturala

50 urte

50 urte ura botilaratzen
Beteluren ur minerala inguru natural batean sortzen da, Aralar mendilerroaren oinean. Kalitate handikoa eta garbia izanik, tratamendurik gabe ontziratzen da bere propietateak mantentzeko, diuretikoak baita, digestio onekoa eta lasaigarria. Ur honek dituen osagai eta propietateak bere horretan mantentzen dira, eta bereak dituen mineralei esker edan erraza da, zapore berezi eta atseginekoa.

Donostia-Iruñea errepidea
31890 Betelu (Nafarroa)
Tel.: 948 513 157
www.betelu.com

osagaien %30 eta %90 bitarte irazten dugu.

Gwynne Lyons ikerketaren egilearen hitzetan, ezin da ziur jakin arazoaren larritasuna zein den, datuak falta direlako, baina ziur da gizakiok berandu baino lehen ordaina jasoko dugula: “Beldurgarria da egungo egoera; antidepresiboak, kontrazepzio pilulak, minbiziaren kontrako medikamentuak, lasaigarriak eta antibiotikoak aurkitu ditugu arrinetan, eta batek jakin zer gehiagorekin kutsatu diren”.

Datu eta ondorio zehatz gutxi

Sendagaiek historia luzea badute ere, haien ahalmen kutsatzailea ez da guztiz ezaguna. Azken urteotan ikertzaileak ohartu dira ibaietan haien arrastoak badirela, batez ere kutsatzaile “tradizionalen” jaitsierari eta detekzio teknika berriei esker. Orokorrean sistema neuronal eta endokrinoa izaten dira kalteak. Baita erantzun immuneko zelulak eta barne egiturak ere. Animaliez gain, landareek ere kaltea jasaten dute; haien fotosintesi ahalmena eta biziraupena murriztu daitezke.

Ikertzaileek ezin dute frogatu zehazki zein botikak, zein kopurutan eta nola eragin ahal dion bizidun espezie bakoitzari. Maren Ortiz-Zarragoitia EHUn Plentziako Itsas Estazioko ikerlariak azaldu duenez, kalteak agerikoak izan arte ezinezkoa da efektuak aurreikustea.

Gaur egun ez dago leku “garbirik”, Ortiz-Zarragoitiaren esanetan. Hirietatik, ospitaleetatik eta abeltzaintza jardueretatik gertu dauden ur masak medikamentuak izateko arriskuan daude, baina edateko uretan ere atzeman dira botika arrastoak, lurrazpiko akuiferoak ere kutsatuak dauden adierazle. Gizakiok ere

arriskuan egon gaitezke, bai zuzenean, iturriko ura edateagatik, bai zeharka, kontsumitzen ditugun barazki eta fruiten bitartez.

Beste behin, ikerketa eskasiak emaitza zehatzen falta dakar eta egun ez dago guztiz argi kutsadura mota horrek gizakiengan zer eragin duen. Edonola ere, oraindik ondorioak neurtzeko gai ez izateak ez du esan nahi arriskuan ez gaudenik, Gwynne Lyonsen ustez.

Ikerlari britainiarra bereziki arduratuta dago antibiotikoenganako esposizio jarraituak bakterioen erresistentzia handitu dezakeelako eta, ondorioz, medikamentu horien eraginkortasuna mugatu. Maren Ortiz-Zarragoitiak azaldu digu sendagaiak ingurunean agertzen direnak baino askoz dosi handiagoetan hartzen ditugunez, ez dela gizakienganako efektu zuzenik espero. Hala ere, nahiz eta edateko uretan medikamentuak oso kopuru baxuetan agertu, haurtzarotik helduaro arteko etengabeeko esposizioaren arriskua azpimarratu du.

Kalteak epe luzean

“Medikamentuak biologikoki aktiboak izateko diseinatuta daude, eta nahiz eta asko jakin euren eraginaz dosi terapeutikoetan, hau da, pertsona bakoitzak hartu beharreko kopuruaz, ezer gutxi dakigu maila baxuko esposizio jarraituak epe luzean izan dezakeen eraginaz, bai gizakiengan bai animalien”, nabarmendu du Lyonsek. Besteak beste, “koktel efektua” deiturikoaren arriskua azpimarratu du ikerlariak. Alegia, botiken osagaiak beste hainbat agente kutsatzaileekin konbinatuta izan dezakeen eragina.

Hala uste du Ortiz-Zarragoitiak ere. Haren EHUko lantaldeak Euskal Herriko

» Ez da ia ikerketarik egin sendagaiek ingurumenean duten eragin kutsatzailea aztertzeko, baina egin direnek erakutsi dute arazoa egon badagoela

» **GWYNNE LYONS, IKERLARIA:** “Antidepresiboak, lasaigarriak, minbiziaren kontrako botikak, antibiotikoak... aurkitu ditugu arrinetan, eta auskalo zer gehiagorekin kutsatu diren”



ANNABEL-CC BY SA

estuarioetako kutsadurak bizidunengan duen eragina aztertu zuen, eta besteak beste lazun arren feminizazioa behatu zuten hainbat lekutan. Sendagaien ondorio zuzena izan dela baieztatu ezin izan badute ere, hainbat produktu kimiko sintetikoren metaketa eta esposizioaren ondorioa badela azpimarratu du ikerlariak.

Ohiturak aldatu beharra

Lyonsek eta Ortiz-Zarragoitiak argi dute kontzientziarioa eta ohitura aldatuta direla erantzuna. Hiru frontetatik aurre egin beharreko arazoa dela diote: araudiaren egokitzapena, arazketa sistema berezien garapena eta norbanakoen kontzientziarioa. Araudiaren aldetik, senda-

gai bidezko kutsadura murrizteko legedi zehatz baten falta nabarmendu dute. Ortiz-Zarragoitiaren berbetan, ezjakintasuna izan da horren arrazoi nagusia.

Hala ere, ikerlariok azaldu dutenez, egun enpresa farmazeutikoek merkatuan produktu berri bat jarri ahal izateko ingurumenean izango duen inpaktuari azterketa aurkeztu behar dute. "Bide luzea geratzen da, baina lehenengo pausoak eman dira", dio EHUko kideak.

Industria farmazeutikoari eragingo dion legedirik ezean, arazoari aurre egiteko modu zuzenena arazketa da. Gaur egun, sendagaien osagaiak ibaie-tako uretatik desagertzeko hainbat sistema garatzen ari dira. Besteak beste, oxidazio aurreratuko metodoak, foto-

Arazketa sistema berrien garapena da ibaietatik sendagai arrastoak desagerrarazteko bideetako bat. Probatutako zenbait metodok emaitza onak izan dituzte, baina kostua handia da oraindik.

degradazioa eta alderantzizko osmosia metodoak garatu eta probatu dituzte araztegi hobekuntzan lan egiten duten taldeek.

Emaitzak onak direla baina kostu ekonomikoa oso altua dela adierazi du Ortiz-Zarragoitiak. Norbanakoen zeregina ere badela gogoratu du. Haren hitzetan, ezinbestekoa da medikamentuak zentzuz erabiltzea eta soberan daudenak dagokien tokietan biltzea, komunitate behera edo zaborretara bota beharrean. ■



Bilbao Bizkaia
Ur Partzuergoa,
50 urte hiritarren
zerbitzura

Urak sortzen du bizia.
Uraren kudeaketa egokiak,
gure **ONGIZATEA**


Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia


1967-2017

www.consortiodeaguas.eus

EHEko Azaitz Gartzia eta Urko Aierbe

“Baldintzak badaude euskalgintzak eta instituzioek hirugarrenez akordio saiakera egiteko”

Gelditu eta gogoeta egiteko beharra sentitu du Euskal Herrian Euskarazek. Urtebeteko hausnarketa egin dute EHEko kideek eta elkartetik haragoko euskaltzaleek. Duela hainbat aste adostu duten idazkiak jasotzen duenaz aritu gara Azaitz Gartzia eta Urko Aierberekin.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Adostu duzuen idazkian diozue EHE ahul dagoela eta horretan eragiten duten hiru arrazoi aipatu dituzue.

Azaitz Gartzia: Duela urte batzuk kezka sumatzen genuen EHEn, oro har herri mugimendua eta militatzeko ereduak aldatzen ari zirelako. Horrek EHEn eragina zuen eta ordura arte garatzen zituena dinamika nekez ateratzen ziren aurrera. Beraz, helburuak erdiestea kosta egiten zen. Hori zen arrazoi nagusi bat, EHE beraren egoera. Talde gutxiago zeuden, militatzeko estiloa aldatu zen.

Bigarrena, euskalgintzaren egoera zen. Euskalgintza iparririk gabe irudikatzen genuen. Hirugarrena, testuinguru politikoa. Hiru arrazoi nagusi horiek eraman gintuzten hausnartzera. Gogoeta sakona egin behar genuela ondorioztatu genuen.

Zuen ikur nagusiak defentsa eta eskaera izan dira. Orain instituzioen eta euskalgintzaren arteko lankidetzak bultzatu nahi duzue.

Urko Aierbe: EHEk ez du elkarlana ukatu izan. Euskararen normalizazioaren alde egiten duten instituzioekin elkar-

lana landu dugu, Udalbiltzarekin eta UEMArekin, adibidez. Ez dugu instituzioen aurkako jarrera izan, baizik eta instituzioek garatzen zituzten politiken aurkakoa. Aurkakotasuna, kritika edo salaketa.

Instituzioen eta euskalgintzaren arteko elkarlana beharrezkoa da, ezinbestekoa, baina bi baldintza argi jartzen ditugu. Lehenik, instituzioek euskararen berreskurapenaren alde egin behar dute, eta bigarrenik, elkarlanak zintzoa eta leiala izan behar luke. Nola ulertzen ditugu zintzotasuna eta leialtasuna? Elkar onartzetik. Instituzioek onar dezatela euskararen aldeko jardueran badutela egitekoa, baina herri mugimenduak ere baduela berea. Askotan ez zaigu onartzen. Hortaz gain, zergatik ez ditugu hizkuntza politikak elkarrekin pentsatuko eta diseinatuko, eta erabaki ahalmenak partekatuko?

Guretzat nahi ez dugun ereduaren adibidea iazko abenduaren 3ko Euskararen Eguna da. Agiria instituzioek osatu zuten eta eragileongana etorri ziren galdetzera ea atxikimendua emango genuen ala ez. Ezin zen koma bat ere aldatu.

Bateragarriak al dira desobedientzia eta elkarlana?

U. Aierbe: Guretzat normala da. Tresa bat edo beste erabiliko dugu instituzioek aurrera eramango duten hizkuntza politikaren arabera. Ez ditugu kritikatzeko alderdiak halako alderdi izateagatik edo instituzioak kolore bateko edo besteko izateagatik, baizik eta aurrera eramaten dituzten politikengatik. Instituzioek borondatea adierazi behar dute, zubiak eraikitzeke bidea.

A. Gartzia: Zubien eraikuntzan egiten dugu azpimarra momentu honetan. Orri zuri bat izan behar dugu elkarlanerako, guztion artean, adostasunak bilatzeko. Herri honek marko juridiko propiorik ez du, bi estaturen menpe dago, eta instituzioek beraiek ere, egunen batean jarrera desobedientea hartzea nahiko genuke. Bide horretan kokatu nahi ditugu euskalgintza, eragiletza politikoa eta instituzioak.

U. Aierbe: Ez gara EHEz bakarrik ari, euskalgintzaz ari gara. 1998an eta 2004an akordio bana sinatu zen eragile politiko eta sozialen artean, euskalgintza hor zegoen. Paper zuriaren aurrean



Ezkerrean, Urko Aierbe EHEren gogoeta-idazkia eskuan duela. Eskuinean, Azaitz Gartzia martxoaren 18an izango den Euskaraz Bizi Eguneko afixarekin.

eseri ziren. Bi esperientziak bidean geratu ziren. Aurrera atera ez izanak ez du esan nahi tresna desegokia zenik. Gure ustez, gaur egun, badaude baldintzak Euskal Herriaren hirugarrenez saiatzeko. Eser gaitezen alderdi, instituzio eta eragile sozialekin batera, jar ditzagun helburuak, adostu ditzagun neurriak, eman diezaiogun bultzada berri bat.

Kontseiluak zein egiteko du testuinguru horretan?

A. Gartzia: Lehen izan duen moduan, pisu handia du orain ere. Egia da euskalgintza, bere osotasunean, norabidea galduta dabilena, baina uste dugu Kontseiluak gidaritzatza politikoa baten baitan euskalgintza batu duela. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko protokoloaren bidetik, lan asko daukagu egiteko eta tresna oso interesgarria iruditzen zaigu. Kontseiluak lan handia egin du protokoloa osatzen. Kontseiluak, euskalgintzaren batasunean eta guk planteatzen dugun akordioa erdiesteko, tresna oso indartsua izan behar du.

Aldaketa handia da EHEk egin duena?

U. Aierbe: Gure ustez ez dugu horren-

besteko aldaketa egin. Gure irakurketak ekintzetara ekartzen genituenek, salaketak eta aldarrikapenak egin ditugunean, jendeak, kanpotik begiratuta, honako irakurketa egiten zuen: EHEk instituzioen hizkuntza politiken aurkako politika darama. Baina gure irakurketa ondokoa zen: euskararen egoera arautzen duen marko juridiko-politikoak zein da? Egokia da? Gure ustez ez, bada salatuko dugu. Azken hamarkadatak bide beretik jarraituko dugu ala elkarlanean bestelako bideak urratuko ditugu? Desiratzen gaude instituzioek hizkuntza politika egokiak aurrera eramateko. Txalotuko genituzke.

A. Gartzia: Berrikuntzak baino, gaurkotzeak izan dira, formari eta edukari dagokionean. Formari dagokionean, pozik gaude autokritikatik abiatu garelarako. Dokumentua osatzen jende askok hartu du parte, eta horrez gain, EHEk kanpoko euskaltzale orok parte hartzeko aukera izan du bai batzarretan baita galdetegi bidez ere. Edukietan, berrikuntza da dokumentu batera ekarri dugula. EHEk historia luzea du, gauza asko esan ditu, idatzi ditu, baina azkeneko

» AZAITZ GARTZIA:

“Kontseiluak, euskalgintzaren batasunean eta guk planteatzen dugun akordioa erdiesteko, tresna oso indartsua izan behar du”

» URKO AIERBE:

“Zergatik ez ditugu hizkuntza politikak euskalgintzak eta instituzioek elkarrekin pentsatuko eta diseinatuko, eta erabaki ahalmenak partekatuko?”

urteetan izan dugun krisiak eta egoerak seguruenik isiltasunera eraman gaitu, kalean ez egotera, dinamikak apalagoak izan dira. Orain hori guztia dokumentuan dago idatzita, eta ahalik eta jende gehienarengana irits dadin saiatu gara. Bada gaurkotzea, baina ez da iraultza berritzailea mahai gainean jarri duguna. Egungo aukera politiko-juridikoen baitan idatzita dago.

Martxoaren 18an Euskaraz Bizi Eguna egingo duzue Arrasaten. Duela urte batzuk Hizkuntza Eskubideen Eguna zen.

A. Gartzia: Oraindik hizkuntza eskubideen urraketak salatzen ibili beharra daukagu, ezin dugu ahaztu. Egia da, bilakaera bat izan dugu eta duela urte batzuk esan genuen euskaraz bizitzeko garaia zela. Euskaraz bizitzeko hautua praktikara eraman behar genuela. Zortzi urte egin ditugu Euskaraz Bizi Eguna antolatzen. Aurten bi berezitasun ditugu: batetik, gogoetaren ondorioak zabalduko ditugu, eta bestetik, euskara irabazpidean jarri nahi dugula aldarrikatuko dugu, egiaz euskaraz bizitzera goazela, herri hau euskalduntzera goazela. ■

Txertatzaileen hizkuntza



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Landareez aritzen gara hemen, baina bai, landareak badira, badirenez nor. Gaur fruitu arbolez arituko naiz, eta horiek bai, horiek bai direla nor. Gure kulturaren, lurra lantzetik datorren kulturaren goieneko koskan ditugu. Ehunka eta milaka urtean landu eta aukeratu, eta hobekuntza kateatu dugu. Irakasle bikainak izan ditugu Asia aldetik ekarritako langintzetan, baita fruitugintzako arterik gorenean ere: txertaketan. Txertatu, sestratu, enpeltu, enpeltatu, mentatu, eztitu, edaen, edaendu, edadon...

Txertoa egiteko bi landare behar ditugu: txertaka eta txertoa. Txertaka nolakoa den fruitu arbola halakoa izango da: lurrera ondo egokituko dena, indartsua, handia, nanoa... Txertoak arbola-aren ezaugarrietan ere zeresana badu, baina batez ere fruitua nolakoa izango den lotzen du.

Txertaketa izerdi kolpea baliatuz egingen da, izerdi horrek itsatsiko baititu bi landare zatiak. Izerdia garraiatzen duten azalaren azpiko bien mintzak elkarren parean jarri behar dira. Kirurgia-lari lana. Oraintxe, udaberriaren hasiera da zotzeko txertoa egiteko sasoi. Gero, bero handien ondorengo uda amaierako



Txertoa sagarrondoan.

bigarren izerdialdian egingo da begiko txertaketa. Txertaketaren helburu nagusia landare klonikoak sortzea da, hau da, amaren kopia berdin-berdinak lortzea, hark ematen zituen fruituen berdinak emango dituzten alabak. Hazitik ia ezinezkoa dena lortzen da txertatuz.

Lan horren garrantziaren adierazle da txertaka edo txertatzeko gai den zuhaitzari esateko zenbat izen dugun: mentatzaga, mentuoina, eztitzaga, ez-

titzaka, momor, iñauska, iñauskaritza, garratza, edadega, branga, basatarra, basa, areki, aldakaitz, agai, enpeltuko, txertaka, txertakabea, sestraka, makatz, makatz-arbola... Batzuk zuhaitz basak izendatzeko ere erabiltzen dira.

Eztitzailleak, enpeltazailleak, edaentzailleak edo txertatzaileak badu lana oraintxe. Urte askoan fruitua biltzeko aukera itsatsiko edo zapuztuko duen lana. Zorroztu labanak! ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Bizkaiko Zalla herriko baserritarrek diote "El día del Angel, 1 de marzo, se hace a todas las lunas" (Aingeruaren eguna, martxoaren 1a, ilargi guztietara egokitzen da). Berdin ilgoran edo ilbeheran, egun horretan ereiten omen dituzte beti piperra eta tomatea. Hazitarako tipulak jarri ere bai. Egun horrek ilargiarekiko berezitasunik daukan jakin nahi nuke.

Rosina Enzunza (Arrieta)

Kaixo Rosina. Hasteko, kontuz erlijioarekin hain lotutako esaerekin. Hortik dator, baita ere, "ilbeherako ostirala ilgora da eta ilgorako ostirala ilbehera" delako esaera. Aingeru horri mirariren bat eginarazi nahi zaio urtero... Hotzean pentsatuta, martxoaren bata sasoi berriaren hasieratzat har daiteke: egun argia asko luzatu da, udaberria laster dator eta neguari lotutako hotza, iluntasuna eta abar atzera uzten ari garenaren irudipena dugu. Era berean, udako landareetan pentsatzeko sasoi da eta aipatzen dituzun ereintza horiek egitekoa ere bai. Ilgora izan edo ilbehera izan, ereitearen hori aspaldiko esaera batek ederki laburbiltzen du: "Izan ilzahar, izan ilberri, emaziozu hazia eguraldi onari". Badakigu ilargiak eragina duela, baina miraririk ez du egingo. Lana ondo egitea da garrantzitsuena.



MUNDUBAT

Gobernantza eredu berriak lantzen



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Elikadura subiranotasuna lantzea eta lanketa horretan genero ikuspegia ere txertatzea. Hori da Mugarik Gabe Nafarroa, Mundubat eta IPES fundazioek elkarlanean abiatu duten proiektuaren ideia nagusia. "Elikadura burujabetzaren eta genero berdintasunaren ikuspegitik, gobernantza lokal eta transformatzaile baterantz" izenburupean, Nafarroako bost merindadetatik pasatuko dira proiektuko kideak. Urtarrila Lizarraldean eta otsaila Tafallan pasatu ondoren, martxoan Tuteran izanen dira eta maiatzera arte ez dira geldituko: Zangozara eta Pirinioaldea eta Iruñeko eta Nafarroa iparraldeko merindadeetara eramanez dute proiektua.

Elikadura burujabetza batetik...

"Elikadura burujabetzaren gainean solas egitea da gure helburua, gaia mahai gainean jartzea", azaldu digu Maialen Chantre Irazoki Mugarik Gabeko kideak. Gaia erakunde publikoetan diharduen jendearekin lantzea ezinbesteko iruditzen zaie, horregatik garrantzia berezia eman diote udaletako teknikari, zinegotzi nahiz alkatuek ere prozesuan parte hartzeari.

Hasieratik zonalde bakoitzeko eragileekin eta garapen agentziekin harremanetan egon dira proiektuko kideak,

elkarlana bultzatzeko. Merindade bakoitzean instituzioetako jendearekin formazioa, "Baratza kritikoa" erakusketak eta azoken eragin sozioekonomikoak aztertu berri dituzten EHUko ikerlarien hitzaldia ari dira antolatzen.

...genero berdintasuna bestetik

"Proiektuan egin dugun lehen gauza eskualde bakoitzeko lehen sektoreko emakumeekin elkartzea eta tailer bat egitea izan da", kontatu digu Mugarik Gabeko kideak. Egunerokotasunean dituzten oztopoak biltzea, baina batez ere sektore barruan emakume izateagatik dituzten gaitzespenak jasotzea da helburua. Bost tailer egin dituzte guztira, eta 40 emakume inguruk hartu dute parte. "Eskualde bakoitzeko emakumeekin egindako tailerretan ateratako arazo eta kezkek helarazten dizkiogu toki horretako instituzioei", dio Chantrek.

Idea, orain, bildutako informazio guztiarekin dokumentu bat osatzea da, edonorentzat eskuragarri jartzeko eta instituzioetara eta Nafarroako Gobernura bidaltzeko. Hori osatu bitartean, falta diren eskualdeetan gaia lantzen jarraituko dute, elikadura sistemaren antolaketa aztertzen eta horren aurrean dauden alternatibak lantzen. ■

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Webguneko edukiak zure e-postan jaso ditzazun, buletin eder bat ari gara prestatzen. Bertan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Martxoak 15: Iruñea Bizi Baratzea hitzaldia

19:00etan, Ingurumen Heziketarako Museoa. Astero eskaintzen du museo honek hitzaldi bat, eta Jakoba Errekondorena izango da euskaraz eskainiko den lehena.

Martxoaren 16an eta 19an Zegaman: Bizi Baratzea Erlezainen Egunean

Martxoaren 16an Jakoba Errekondok Bizi Baratzea hitzaldi berezia emango du: Baratzea erleak eta intsektu onak nola erakarri eta intsektu txarrak nola uxatu, landareen bidez. Igandean, Erlezainen Egunean azokan landare horiek eskuratzeko modua izango da eta Errekondoren aholkuak zuzenean jasotzekoa.

Martxoak 17: Arizkun Sagardo dastaketa

19:00etan Gamiozarrea dolarean, Baztango agroekologia eskola herritarraren baitan. Baztango etxeetako sagardoak, enologoek gidaritzapean dastatzeko aukera.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

QISSAT IPUIN LIBURUA

3

Hamasei begirada Palestinari

Bilboko Zenbat Gararen ekimenez sortu zen duela bost urte Erroa argitaletxea eta 2015ean, "Herrien Mintzoa" bilduma argitaratzeari ekin zioten. Qissat, Palestinako emakumeen ipuinak izeneko hau da bilduma honen barruan argitaratu duten bigarren liburua. Hamasei emakumezko idazleren ipuinak jaso ditu Jo Glanville kazetariak bilduma honetan, gatazkaren eta gatazkaz landako bizitzaren lekukotasuna eta kronikak. Baina Palestina hori baino gehiago da, noski.

Gainerako herrien antzera, Palestinak ere baditu bere arazo eta asmoak, bere etsipen eta ametsak. Egiazko gizarte hori da, hain zuzen, ipuinotan agertzen zaiguna. Bertan bizi izandako Ane Irazabal kazetariak idatzi du liburuaren hitzaurre mamitsua. Liburuaren, eta aurreko "Beduino bat Karibe aldean" izenekoarekin osatzen duen "Herrien Mintzoa" bildumaren aurkezpena martxoaren 30ean izango da Bilboko Zirika herri gunean (Erronda, 12), 19.30ean.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ERROA ARGITALETXEA

Done Bikendi 2, 4. solairua · 48001 Bilbo
Tel.: (+34) 94 423 75 91
www.erroa.eus

#herrien-mundua
#kulturgintza
#literatura
#feminismoa

Martxoko sariak

1



Finalaurrekoetarako eta finalerako sarrerak
Lau sarrera saioko

2



Solte taldearen Ixa diskoa
5 KD

3



Palestinako ipuinak
4 liburu


4



Lekore
3 sorta

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



ASTEKARIAREN BIDALKETAK

Oraingoan Ipar Euskal Herrira garaiz iritsi gara



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

EXTRA! EXTRA! Ipar Euskal Herriko ARGIA-jendeari astekaria larunbaterako iristea lortu dugu! Bai, Euskal Herriaren zilborra gabela pentsatzen dugun hegoaldekoon buruetan berandu izango da, seguru: "Guk asteazken-ostegunetan postontzian izaten dugu-eta..." etorri zaizu burura irakurle, zure *gipuzkoar-zentrismoa* azaleratuz. Baina kontutan hartzen badugu lehen bi asteke edo gehiagoko atzerapenarekin ailegatzeko zirela aleak Xilabara (Xibero, Lapurdi, Baxenafarroara), hau garaipen bat da.

Lurraldetasuna da ARGIArentzat funtsezko oinarrietako bat, baina ez soilik hitzetan geratzeko eta tarteka iparralde idiliko horretaz artikuluren bat edo beste astekarian sartzeko. ARGIAko kide guztiak, Euskal Herriko edozein hegaletan bizita ere, ARGIA modu berean jasotzeko eskubidea dutela aldarrikatzen dugu eta hori bermatzea da gure konpromisoa.

Duela gehiegi inposatutako mugez gainera koherentzian sakontzen ahalagindu gara, ARGIA gure komunitate osoarentzat berdina izan dadin. Tarifa guztiak bateratu genituen orain bi urte bidalketa gastuak gure gain hartuta.

Pauso bat. Noizko iritsi etxeetara, ordea? Bidalketa zerbitzua hobetzen ahalagindu gara oraingoan. Zerbitzu berri bat jarri dugu martxan, eta honen gastuak ere ARGIAk hartu ditu bere gain, uste baitugu badagokigula hori egitea, eta gure ardura dela. Gainera, lehen ez bezala jarraipena egin diezaiokegu gure bidalketari gaur egun. Horrela bai Hegoaldeko eta bai Iparraldeko zerbitzuak orekatuagoak geratzen dira, eta euskal lurralde osoan bidalketan atzerapenik, arazorik egongo balitz arazoa zein den eta non dagoen identifikatzeko aukera dugu.

ARGIA-jende guztiei gogorarazteko aprobeztatuko ditugu lerrook, kide guztiak dutela aukera euren bidalketan arazorik badago guri jakinarazi eta jarraipena egiteko, komunitatea@argia.eus helbidera idatzita.

"Lurraldetasuna diozue, baina bidalketa batekin zer konpontzen da ba?" galde dezake norbaitek. Tamalez mugak ezin ditugu gure kendu, baina gure esku dauden horrelako detaileak aldatuta sinetsita gaude mugak txikitzen direla. Euskal herritar guztioi berdina eskaintzen saiatzen jarraituko dugu. ■



Sarean arrantzatua: ARGIA 1 - MOZALA 0

Mikel Ozaita Azpiroz

@mikel_axeri

Ahoa itxiarazi nahi izan digute isilarazitakoen ahotsa garelako. @argia jendea gara iluntasunari kolorea eta argitasuna emateko.

Xabi Irastorza

@xabirastorza

Mila esker @axiL @argia gaur askeago egin gaituzte

Aitor García

@BBarrabas2

#ARGIA1Mozala0 Txanpionseko emaitza polittena!

kaioak lez

@kaioaklez

Informazio sanoa merezi dugulako. #ARGIA1Mozala0 #freepress

Olatukoop

@olatucoop

Zorionak @axierL eta zorionak @argia! Indartzen gaituena indartzen jarraituko dugu, elkarrekin.

Euskal Herrian Euskaraz

@E_H_E

Euskal Herriaren berreuskalduntzean geratuko gaituen Mozal Legerik ez dago!

Muy Bastos

@muybastos

Gora Mozalik gabeko kazetaritza independentea KOPON!

Iker Tubia

@ikertb

Zorionak @argia eta @axierL borrokatzeak merezi du

DIBORTZIOA

1204. URTEAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Kairo, 1204. Emakume batek atzerrian lanean ari zen senar merkatariairen gutuna jaso zuen, lehenago emazteak bidalitako dibortzio eskaerari erantzunez. Gutuna Kairoko genizahko 300.000tik gora dokumentuetako bat da, Fustateko Ben Ezra sinagogan aurkitutakoa. Historialarientzat idatzi horiek funtsezkoak izan dira Erdi Aroko Ekialde Ertaineko juduen bizimoduaren berri izateko.

Gutunaren egilea merkataria judua zen, eta Erdi Aroan ez zen hura lanbide samurra familiarteko harremanekin uztartzeko. Merkatariairen eta emaztearen izenik ez dakigu, baina bai senarrak denbora luzea eman zuela etxetik urrun, Aden hirian (India) eta inguruetan negozioak egiteko, horrek senar-emazteen arteko harremana gaiztotu zuela, eta, azkenean, emazteak dibortzioa eskatu ziola.

“Zure nahia hori baldin bada, ez dizut leporatuko. Itxaronaldia luzea izan baita. Eta ez dakit Sortzaileak berehala laguntza emango didan eta etxera joateko aukera izango dudan, ala luze joko duen, ezin baitut etxera esku hutsik itzuli. Horregatik, aske uzten zaituen zedula igortzea erabaki dut. Orain erabakia zure esku dago. Niregandik banandu nahi baduzu, onar ezazu arbuia-ze-agiria eta

aske izango zara. Baina zure erabakia eta nahia ez bada, ez ditzagun alferrik galdu zain eman dituzun urte hauek guztiak: agian ordaina geratu dugu eta, bestela, damuak zentzurik ez duen garaian damutuko zara beharbada”.

“Eta, mesedez, ez egotzi errua niri, ez zaitut sekula deskuidatu, eta beti egin dut ahalegina biok nire ohorea kaltetzen duten zurrumurruetatik babesteko. Zuk ukatu nauzu, ez alderantziz. Ez dakit erabakia zurea edo beste norbaitena den, baina, honen guztiaren ondoren, arren ez esan, ez zuk ez beste inork: hau da harengandik jasoko dugun saria eta ordaina. Egun guztia bihotz bakartia minenez dut bananduta gaudelako. Min hori sentitzen dut lerro hauek idazten ari naizela. Baina erabakia zeurea da. Banandu nahi baduzu, aurrera; gauzak dauden bezala utzi nahi badituzu, berdin. Baina ez jarraitu lehen bihozkadari. Eskatu aholkua pertsona zintzoei eta pentsatu zuretzat hoberena zer den. Jainkoak lagun zaitzala erabaki egokia hartzen”.



WILLIAM HOOD DUNWOODY FUND

“Kairoko tapiz merkatariaik”, Jean-Léon Gérôme (1824–1904). Hizpide dugun eskutitzaren egilea ere merkataria eta Kairokoa zen, baina lanak Indiara eramanean zuten. Etxetik kanpo luze egon ondoren, emazteak dibortzioa eskatu zion eta senarraren erantzuna guganaino iritsi da.

Ez dakigu zurrumurruak zer zioten edo oinarri sendorik ote zuten, eta, batez ere, ez dakigu emazteak azkenean zer erabaki hartu zuen. Gutun hori eta beste asko Shelomo Dov Goitien (1900-1985) etnografo eta historialariak bildu eta itzuli zituen *Letters of Medieval Jewish Traders* (Erdi Aroko merkataria juduen gutunak) liburuan. Haren ustez, salerosle judua Egiptora itzuli zen, eta, emazteak arbuia-ze-agiria onartu izan balu, senarra ziurrenik Adenen geratuko zen. Hala, Goitienek dionez, “urte luze gogor haiek ez ziren alferrikakoak izan. Azkenean, bidaiariarekin elkartu zen”. ■



THE GRAPHICS FAIRY

Basus gerra, 40 urteko mendeku katea

K.o. 494. urtean, Arabian, Saad Bin Shams izeneko gizon baten gamelua hil zuten Tahglib tribuko kideek. Gizon hura Al-Basus izeneko emakumearen babespean zegoen, eta hura Bakr tribuko buruzagiaren izeba zen. Piztear zen gatatzari haren izena ipiniko zioten.

Berehala, gameluaren heriotza mendekatzea erabaki zuten. Hala, Taghlib

eta Bakr tribu ahaideen arteko gatazka piztu zen eta 534. urtera arte iraun zuen mendekuzko gorpil zoro hark. 40 urteko gerra zentzugabea ez zen irabazle garbirik izan.

Egun, arabiar munduko hainbat tokitan Basus gerra mendekuek eragiten dituzten kalteen metafora gisa erabiltzen dute. ■

Polemika ETBko saioaren inguruan

Euskalduna naiz, eta zu, ni bezala, gerra kultural batean sartuta zaude

Euskalduna naiz, eta zu? saioaren inguruko polemika ikusita galderak bata bestearen atzetik datoz: non geratu da gure identitatea definitzeko geneukan gaitasuna? Non galdu da euskaldunaren definizio irekia, zeinak dioen hemengo dela hemen lan egiten duen eta bizi den edonor? Posible al da intsumisioa gerra kulturaletan?



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Thomas Frank kazetariak dioenari erreparatzea interesgarria izan daiteke ETBko saioaren inguruko zalapartak ezarri duen eztabaida-markoa aztertzeko. Badu liburu bat, *What's the Matter with Kansas?* (Zer gertatzen da Kansasen?), esplikatzeko duena nola ari diren galtzen iritzi publikoaren bataila AEBetako demokratek errepublikanoen aurrean. Labur: azken urteetan eztabaida mediatikoa lekuz aldatu da, gai ekonomiko eta sozialetatik eguneroko bizimoduarekin zerikusia duten aferetara pasaz (abortua edo sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, adibidez). Eta kontserbadoreek asmatu dute "elite progreen" aurka bideratzen gai horien inguruko zalapartak, kalapitak eta haserreak.

AEBetako gerra kulturek bi bando definitzen dituzte estereotipoetan oinarrituta: alde batean leudeke ikasketa unibertsitarioak dauzkaten pertsona moralki dekadenteak, kafea edaten europarrak bezala, atzerriko kotxeak gida-



tzen eta homosexualak defendatzen; eta bestean berriz, langile kristau zintzoak, bizimodu tradizionalako amerikar onak.

Euskaldun xenofoboak espainiar gaixoen kontra

Etxeko polemika honetan antzeko rol-banaketa aurkeztu dute Espainiako heldabide nagusiek: nazionalista-xenofobo batzuk euskaraz, Espainiako herritarrei atzeratu, fatxa eta ezjakin deitzen. Portzierto, momentu batean non, haien arguila nazionala lurperatuta geratzen ari den ustelkeria eta murrizketa mordo baten azpian –gasolina ona da hori–; eta EITBren erreformari buruzko debataren atarian –oportunismo politikoa ez baitzaio falta kontu honi–.

Baina bitxia da erreparatzea polemika lehertu denetik eman ditugun iritziei ere, jabetzeko programa sutsuen defendatu dutela ezkerreko euskaldunek, normalean ETBren kritiko agertzen den jenderak, alegia; nahiz eta horretarako pro-

grama bera justifikatu edo justifikatzetik gertu ibili, Talioiaren legea paseatzera ateraz, edo, bestela esateko "odolkiak ordainetan" aldarrikatuz argudio nagusitzat. Ez da oso estrategia eraginkorra.

Gerra kultural baten aurrean gauden lehenbiziko aldia ere ez da. Intentsitate maila handiagokoak izan ditugu aurreko bizpahiru hamarkadetan akaso. Eta lortzen dute, pixkanaka, kontakizun bat ezartzea non gutxiengoan dauden euskaldunak pribilegiatu gisa agertzen diren, eta gehiago espainiarrari adjudikatzen zaion kolektibo azpiratuaren rola. Bide batez beste kontakizun batzuk deskartatzen dira: herritar arruntak vs. eliteak edo haustura vs. egungo erregimena, adibidez.

Bi bando estereotipatuak elikatzen jarraitzea ezinbestekoa du estrategia horrek funtzionatzeko. Aldiz, kultura- eta identitate-politika berrietan inbertituz, marko propioak eraikiz, posible da gerra kulturei intsumisioa deklaratzeko. ■

César Strawberry,
idazle eta abeslaria:

“Gogoeta baldintzatzea erregimen autoritario ororen egunerokoa da”

César Strawberry (Madril, 1964) Def Con Dos hip-hop eta rap-metal musika taldeko bozeramailea eta idazlea da; hiru eleberri eta taldearen biografiaren lehen zatia idatzi ditu. Urtebeteko espetxe zigorra ezarri diote, 2013tik 2014ra Twitterren “gorrotoaren solasa elikatu eta terrorismoa gorestegatik”. Sareko gorrotoaren kontra Bartzelonan antolatu dituzten “Bartzelona vs Gorrotoa” jardunaldien atarian solastatu gara adierazpen askatasunaz, gorroto delituaz eta bere gaineko akusazioaz.



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: DANI CODINA

Urtebeteko espetxe zigorra ezarri dizute. Nola eman dituzu hilabete hauek?

Gorabeheratsu. 2015eko maiatzaren 19an atxilotu ninduten, udal hauteskundeak baino bost egun lehenago, ustezko *Armiarma III* operazioaren baitan. Nire abokatuak polizia-agiria eskatu zutenean ikusi genuen operazioa beldurra sustatu nahi zuen Barne Arazoetako Ministerioaren publizitate-lema zela.

Nola gogoratzen dituzu egun haiek?

Ikaragarriak. Ezin nuen sinetsi. Bost poliziak atxilotu ninduten bortizki eta ziega batean sartu ninduten hainbat orduz inkomunikatuta utzita. Publikoki agertzera behartu ninduten, sare konspiratzaile baten burua izango banintz bezala. Erokeria.

Ezustean hartu zintuen?

Noski, garai hartan 26 urteko ibilbide musikala nuen eta gutxien espero nuena zen atxilotuta bukatzea. Bi gauza ikasi nituen: batetik, ordura arte sortu nituen kantetan abestutako guztia egia zela egiaztatzearen poza. Ordura arte adierazpen askatasunaren mugen inguruan asko abestu bainuen, eta pentsatzen nuena esaten jarraitzen nuen inork eragotzi gabe. Bestea, noski, beldurgarria izan da, eta emozionalki oso gogorra. Askok ikasi dut azken bi urteetan.

Ustez hemeretzi atxilotu izan ziren operazioan. Ezagutu dituzu?

Bai, hori da: ustez. Izan ere, polizia argitze-agiririk ez egoteaz aparte, gaur egun bost atxiloketa gehiago izan zirela bada-



kit. Gainontzekoekin ez dakit zer gertatu den. Esan bezala, guztia publizitate saioa izan da, eta nire figura erabili dute terrorismoa goresten duen sare baten gurua izango banintz bezala. Noski, akusazio hori, barregarria izateaz aparte, erabat faltsua da.

Sententzia epailearen eskuetara iritsi zenean hark ez zuen deliturik ikusi. Fiskalak, aldiz, helegitea jarri zuen. Zer deritzozu?

Fiskala Carlos Bautista da. 2014an Auzitegi Nazionalak ohartarazpena egin zion, Twitterren sortu zuen kontu faltsu baten bitartez bere kideez iseka egiteagatik. Horretaz aparte, mutatu egin da: fiskal aurrerakoa izatetik, ultrakontserbadorea izatera pasatu da. Eta nire sen-



tsazioa da kasu hau erabili duela bere auzibidea garbitzeko. Izan ere, ez zuen helegitea jarri bakarrik, gainera erregearen kontrako irainen delitua gehitu zuen, lau urteko espetxe zigorra eskatuz.

Zer gertatu zen ondoren?

Erregearen kontrako irainen delitua ez zen aintzat hartu, baina terrorismoaren gorespren delitua mantendu zenez epaiketa egin zen. Auzitegi Nazionalen aurkeztu nintzen eta errugabetu ninduten, baina fiskalak helegitea aurkeztu zuen, beste behin. Bitxia bada ere, Auzitegi Gorenak, Perfecto Andrés magistratuaren boto partikularra kontra izan arren, terrorismoa goresteagatik erruduna naizela adierazi zuen urte bateko espetxe zigorra ezarrita. Noski, erabaki

hori apetaren arabera hartu zen; legediak aurreikusten duen bezala, sekula ezin da iritzi delitu bat epaitu testuingurua kontuan hartu gabe. Eta Auzitegi Gorenak sekula ez ninduen deitu egoera azaltzeko.

Orain zertan da sententzia?

Auzitegi Gorenean ezgaitasun baliabidea aurkeztuko dugu, eta ondoren Konstituzio Auzitegian helegitea jarriko dugu. Hark erabakitzen duenaren arabera, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegira joango gara; han, zalantzarik gabe, askietsiko naute. Beste behin, Espainiako Erreina lotsagarri geldituko da. Baina larriena da, eragin didaten babesgabetasunaz aparte, urte hauetan gutzietan sententzia hau erabiltzen ari

direla Auzitegi Nazionalera iristen diren gorespren eta umiliazio delituen jurisprudentzia gisa.

Azken delituen artean dago Valtònyc-en auzia. Zer duzu errateko?

Tira, lotsagarria da. Esan didatenez haren sententziaren lehen zortzi orriek, gutxienez, euskarrizat dute Auzitegi Gorenak nire sententzian ezarritako jurisprudentzia. Rap kantari bati abesti bat sortzeagatik hiru urteko espetxe zigorra ezartzea kezkarria da. Europako legedian onartu ezin den gertakaria, zalantzarik gabe.

Nola ikusten duzu adierazpen askatasunaren osasuna gaur egun?

Lurperatuta. Okerrrena da azken hama-



bost urteetan adierazpen askatasuna mugatzeko legeak sortu direla. Jihadismoaren Kontrako Itunetik hasi, Kode Penalaren azken erreformatik pasa eta Mozal Legera iritsi arte. Erabateko diskriminazioa dago Espainiako Gobernuarekin lotuta dauden iritzien eta ezkonformisten artean. Ideologia kriminalizatzen ari dira, adierazpen askatasunak oinarrizko eskubidea izan behar lukeen arren.

Valtònycen eta zure auziaren ondoren, Urdangarin, adibidez, espetxe zigorretik libratu da...

Nabarmenki, epaileen agintean gaur egun konparaziozko bidegabekeria agerikoa da. Botereak inposatu nahi dituen aginduen kontra agertzen garen ezkonformistak erabat kriminalizatuta gaude. Behin eta berriz saiatzen dira gure adierazpenak delitu bilakatzen, batez ere, legedia bitarikoa baita halako egoerak bermatzeko. Espainian gorroto delitua erabiltzen da artistak, abeslariak, idazleak eta iritzi-emaileak dagoeneko ez dagoen terrorismo batekin lotu eta auzipetzeko.

Eraso horiek, gainera, kulturaren sustapenaren kontra doaz.

Datozen belaunaldiak erabateko ezjakintasunean hezi nahi ditu botereak.

“Armiarma III operazioa publizitate-lemaz, beldurra sustatu nahi zuten Barne Arazoetako Ministerioarena”

“Espainian gorroto delitua erabiltzen da artistak, abeslariak, idazleak eta iritzi-emaileak dagoeneko ez dagoen terrorismo batekin lotzeko”

“Gustuko ez ditugun gauzak entzuteko gaitasuna da kultura demokratikoaren zimendua; heinetik kanpokoa da Hazte Oír-en kanpaina gorroto delituarekin lotzea”

Filosofia irakasgaia zokoratzen den unetik, bistan gelditzen da jendeak askatasunez pentsatu eta adierazteko interesik ez dagoela. Interes handiagoa dute errealtatearen gogortasuna askatasunez epaitzeko gai izango ez diren pentsaerak sustatzeko, irizpiderik gabeko pentsaerak... Azken batean, gogoeta baldintzatzea erregimen autoritario ororen egunerokoa da eta Espainian, zoritxarrez, testuinguru horretan gaude.

Hazte Oír-en kanpainako autobusa geldiaraztearen kontra agertu zara. Zergatik?

Han eta hemen, adierazpen askatasuna mugatzearen kontra nagoelako. Adierazpen askatasunak demokrazia ororen bermatzailea izan behar luke; tolerantzia eta gustuko ez ditugun gauzak entzuteko gaitasuna dira kultura demokratikoaren zimenduak. Horregatik, Hazte Oír-en kanpainaren mezua gorroto delituarekin lotzea heinetik kanpokoa iruditu zait. Gorroto delituak espetxe zigorra dakar, eta kasu honetan nire ustez zigorrik behar bada administratiboa edo eskubide zibilaren bitartekoa izan behar luke. Baina sekula ez penaletik, bestela adierazpen askatasunaren kontra jasotzen ari garen etengabeko eraso elikatzen ari gara. ■

Antonio Gezala

Modernitate birrindua

TRANBIEN ARTEKO TALKA AREATZAN (1922)

Olioa oihalean. 116 x 90 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Zer pentsatua ematen du Arte Ederretan lizentzia lortu duen batek, ikaslerik kas-karrena izanda ere, ez ezagutzeak, kar-reran inoiz entzun ez izanak izen hau: Antonio Gezala Ayrivie (Bilbo, 1889ko ekainaren 11 - Bilbo, 1956ko irailaren 13a). Zer pentsatua ematen du.

Kirmen Uribek *Elkarrekin esnatzeko ordua* nobelara ekarri du, mamira zein azalera; harrigarria da Begoña Sotari egin zion erretratua. Baina *Tranbien arteko talka Areatzan* hau ere ez da makala.

Zer pentsatua ematen du XX. mende hasierako euskal arteaz daukagun irudi lau-soak beti jotzea klixera: mundu galduaren idealizazioa, jatorri mitikoaren purutasu-



na... eta dena berdina zela pentsatzea eta horrekin geratzea, eta ez ikustea, printza bat izan arren, izan zela besterik, izan zela munduari beste begi batzuekin begiratu zionik, Antonio Gezala bezala.

Beste lan batzuetan egin zuen gisa berean, artistak hiriko giroa harrapatu nahi du bere mihisean, abiadura, zarata, mugimendua; abangoardien eragina nabari zaio, futurismo kutsua du. Bilbon gaude 1922an, hiriak ordurako 120.000 biztanle ditu. Hiri modernoa da Gezalak bere lanetan erakutsi nahi duena: autoak, tranbiak, argindarra, publicitateak, jendea, nor bere aterkipean. Eta bat-batena istripua.

Aita merkataria zuen, mundu horixe nahi semearentzat ere. Ikasle kaskarra zuzentzeko asmoz Bordelera bidali zuten 13 urterekin, eta gero Manchester-rrera, 1904an. Ordukoa da ezagutzen zaion lehen marrazki kaiera. Merkataritza ikasketak utzi eta pintore izateko erabakia hartuta itzuli zen 1907an Bilbora.

Pinturan ez ezik, afixak egiten ere erakutsi zuen bere talentua, bai eta eszenografian ere. Berak egin da Eresoinkaren ikurra. Filatelian babestu zen gerra ostean.

Barne erbestealdi luzearen ondoren hil zen, 1956an. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Agian arteak du erantzuna



Amaia Alvarez Uria



Eromekanika. Makineria sozialaren erotika

SAIOA OLMO

Ideatomics, 2016

A: Beti izango dugu kartzela.

B: O bai, kaiola, barra zuzenak, gogorrek zorrotzak (...). Presondegia, legearen pisu guztia nire gainean izateko presioak baretzen nau, azpiratu (...) nola gelditu bere egiten nauen indar eztanda hau?

A: Kontrolpean dut, gelaren giltza daukat.

B: Banekien zutaz fida nintekeela. Hasieratik sumatu dut koskorra zure galtzetan. Poltsikoan duzu, bero, zure azalaren kontra. Badakit une honetan eskuaz igurzten ari zarela (...) zer egingo duzu horrekin?

A: Sarrailan sartuko dut.

B: Ez, oraindik ez, itxaron, utzidazu lehenengo ikusten. Esan, (...) zure giltzak, zer botere ematen dizu?

A: Eskoletako, erietxeetako, elizetako, banketxeetako, epaitegietako, legebiltzarreko atek zabaltzen ditu.

Elkarrizketa horrekin hasten da *Eromekanika. Makineria sozialaren erotika* liburua. Saioa Olmoren proiektuak, EPLC (*Espacio Para Los Cuerpos*) taldearen performanceek, eta Xabier Erkizia, Idoia Zabaleta, Diego del Pozo, Agurtzane Ormatza, Ainhoa Güemes, Nestor Makhno eta Javier de Riveraren testuek osatzen dute. Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez argitaratu dute eta euskarazko itzulpenean findu beharreko pasarteak dardela esan behar da.

Eromekanika kontzeptua azaltzeko hiru osagai aipatu behar ditugu: 1) Egitura sozialak. 2) Boterearen dispositibo diziplinar eta errepresiboak. 3) Harremanak, desira eta libidoa. Proiektu honen sorrera Deustuko zubia-errietan dago eta inguruan izandako

elkarrizketa batzuetan. Elkarrizketok joko eta fantasia sexualak egoera sozial ugartan kokatu eta engranaje mekanikoetan martxan irudikatu zituzten.

Eskolan, ateneo libertarioan, elizan eta sarean egindako performanceetan erabilitako elkarrizketak, kartelak eta argazkiak jasotzen dira liburuaren hasieran eta amaieran, eta erdigunean argazki-muntaiak eta testuak daude (eremu desberdinetako jendeak gaiaren inguruan egindako gogoetak). Liburua bera fetitxetzat har daiteke, bere tamaina, kolore eta testuragatik; ia-ia eskuartearen kabitzen da, goxoki edo bonboi baten zorroaren kolorea du eta azala ukitzeraoan erliebean senti daiteke proiektu honetarako sortutako ikonoa: infinituaren sinboloaren katean sexu-organoetatik engranajeko hagin eta pernoetaraino doan ondo koipeztatutako mekanismoa.

Ideatomics ekimenak beste proiektu batekin eman dio jarraipena *Eromekanika: Teknologia Bigunak*, epilogoan ikusten den bezala: "Kartzela beti egongo da han, ez badugu desmuntatzen lagunduko diguten zenbait teknologia bigun garatzen". Irakurtzen-ezagutzen jarraitzeko. ■



Saioa Olmo
artista bilbotarra.

» TELEGRAMA

Niño de Elcheri euskal nazionalitatea emango diote martxa honetan: flamenkoari azkenaldian astinaldi ederra eman dion musikaria Bilboko Kafe Antzokian izango da martxoaren 17an **STOP Mr. Señora** antzezlan eskainiko du **Metrokoadroka** kolektiboak Donostiako Ernest Lluch kultur etxean hilaren 17an. Eta sarrera doan da! **STOP Maika Etxekopar** eta **Elodie Baffalio** Baionako Euskal Museoan ariko dira zuzenean hilaren 18an. Korrika Kulturalaren baitako ikuski-zuna da eta 11:00etan hasiko da **STOP**

» DISKOA

Ez dituzue erraz lumatuko



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara



Airwalk
LUMA

Autoekoizpena, 2017

Luma taldeko kide
Xabi eta Adrian donostiarrak.



Adinak eta esperientziak zeresan handia dute bizitzako arlo askotan, eta seguruenik horregatik askotan atzera begiratzen dugu, jakitun izanda gure garai bateko erreferenteak ez direla errepikatuko, atsekabe puntuarekin. Bai, ia ezinezkoa da bizitzako beste garai jakinetan kantu batzuekin lortutako atxikimendua errepikatzea eta hankaz gora jartzen zaituzten proposamen berriak aurkitzea oso zaila da. Baina, onartu dezagun, niri behintzat aspaldian sorpresa handiena sorrarazi didaten taldeak musikari oso gazteek osatutakoak izan dira. Eta horien artean sorpresa oso atsegina izan da Luma bikotea ezagutzea. Lagun pare baten aholkua, interneten bideo batzuk ikusi izana, zuzenean beraiekin gozatzea eta, orain, diskoa entzutea. Izan ere, jauzi handia dute zuzenekotik diskora, eta alderantziz: plano desberdinak dira.

Luma Xabi eta Adrianek osatzen dute, Donostiako 24 eta 22 urteko bi gaztek. Skate egitera eta kontzertuak ikustera batera joaten ziren eta halako batean musika talde bat sortzea erabaki zuten. Aurretik blues proiekturen baten murgilduta egon baziren ere, orain dela bi urte jarri ziren martxan. Gitarra eta bateria, ez dute besterik erabiltzen eta,

egia esanda, oso ondo moldatzen dira. Xabik irudimena dauka gitarra jotzen eta nerbioa, eta erregistro ziurreko ahotsa, ingelesezko dikzio oso sinesgarriarekin. Adrianek, berriz, estilo handiko astindua du, oso aberatsa.

Iazko maiatzean *Club* lana kaleratu zuten, lau kantuz osatutakoa. *Cueva* kantua zuzena da, gordin samarra eta rockeroa, pausatuagoa bada ere punkaren trinitatetik –Stooges, Ramones, Damned...– edaten duena. *Clubek* badu labeleko stoner-rocketik baina nonbait Jim Morrisonen kadentzia ere jaso du. *Messman* zikinagoa (distortsionatua) eta era berean dantzagarria, post-punk-arekin inoiz dantzatu duenaren seinale. Eta, azkenik, *Maniac*-ek New Yorken erditutakoa dela dirudi, Ramonesen ahaidea da, baina paradoxikoki RIPen *Mundo muerto* nabari daiteke atzealdean.

Orain otsailean kaleratutako *Airwalk* aurkezten dihardute, nahiz eta zuzenean ikusi eta entzun daitekeenak kutsu grungeagoa eta rockeroagoa, indartsuagoa, duen. *Borne* psikodeliaren eta 90eko hamarkadako noise-aren arteko entsalada da, erritmo dantzagarriak ere batzen dituena. *Trampantage* labeleko noise-popa da, Sebadöh iparrean izan dezakeena: *Denboraren* (hauxe ere ingelesez) rock malenkoniatsua da, landua erabat. *Sparkie sparkie*-n, berriz, Pixies melodikoenak Ingalaterrako power-popa lagun; eta, azkenik, *Players* post-rock (analogiko) baina ia elektronikoa, dantzagarria. ■

Umorez egiten da iraultza onena



ERRADIKALAK GARA

Martxoaren 11n, Andoaingo Bastero antzokian eskainitako bertso eta antzerki emanaldia. Hurrengo emanaldiak: martxoaren 30ean Hernanin eta apirilaren 1ean Lasarten.



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Barre, negar eta hesteak estutu egin genituen emanaldian. Beso zabalik eskertzeko oparia da bi artistak geruzak erantzten joatea emanaldian zehar, beren bizipenetatik eta zintzotasunez. Lortu zuten ikusentzuleok bat egitea bi zipen horiekin, eta horrela gure buruari, gure kontraesanei, aurpegira begiratzeari: kontraesan bakoitza izendatzea gordin eta esplizituki, tarteka umorez eta adibideetan islatuta. Nahasketa honekin oso emaitza indartsua lortu dute.

Ane Labaka eta Beatriz Egizabal ikusi genituen eszenatokian: bertsoa eta antzerkia. Bakoitza den bezala eta elkarren ondoan. Bi arteak eta bi artistak batera behartu gabe. Bakoitzak bere espazioa hartuz, bakoitza bere estiloan, eroso. Eta elkarren ondoan, elkarren kontrastean, bata bestearen zirikatu, birribildu zituzten gaien buruzko lanketak.



ARGAZKIAREN ITURRIA: LANKU


Entzuleei erreparatuta, bi mundu behintzat elkartu ginen: bertsozaleak eta feministak. Emanaldiaren hasieran gai horixe landu zuten, Egizabalek kontatu baitzuen bertsolaritzarekiko bere harremana nola joan zen garatzen. Zer pentsa asko ematen du, bi aldetarantz, egin zuen kontaketa: batetik, euskara eremu ez euskaltzaleetara nola hedatu pentsatzen ari direnek ondorio esanguratsuak ateratzerik izango dute adibide zehatz honetatik. Eta bestetik, euskaltzale labeldunok gutxitan bezala jasoko dugu, aurpegira eta umore handiz esanda, zer sentitzen duen labeldunon aurrean bere burua talde horretatik kanpokotzat duen batek.

Feminismoak interesa piztu digunontzat eta eguneroko bizitzan askatasun zentimetroak irabazteko jarreran jarri gaituenontzat oparia iruditu zitzaizkidan bertso emanaldi hau. Gaiak, galderak,

tentsioak, bere horretan taulan ikusi genituelako eta bertsoan mezuak zuzen eman zirelako. Ez da eroso ikusteko emanaldia, baina emozio gogorak positiborantz bideratzea lortzen dute, liseritzeko elementuak emanaz, eta behar den unean eta dagokion dosian umorea erabiliz. Batzuk aipatzearen, gogoan iltzaturata geratu zaizkit “zergatik naiz heterosexuala?” galdera planteatzen duen eszena erotikoa, ama izateari buruzko bertsoak eta eszenaratzea, aniztasunaz ahoa bete eta oso berdintsuon artean egiten dugun bizimodua... eta feminista kaputxatuak oholtzara eramaten dituen eszena, datu eta adibide zehatzetan indarkeriak seinatzen dituzten bitartean.

Eszenako elementu denak daude zerbaitetarako, sujerentzietara irekiak. Eta bertsoak sorta gisa argitaratzeak merezi luke, zaleok buruz ikasi ditzagun. ■

Hitz gezidunak

... IZAN, AMAITU PERTSONAIAREN ABIZENA	ALDI, SASOI LARRU-AZALEKO GORRIUNE BIZI	ESKAS, MURRITZ JOKAMOLDE	ALUMINIOA NAFARROAKO HERRIA	DUT, GIPUZKOAN ABIATZEN DA	PERTSONAIAREN JAIO TERRIA	OINAZTAR GALDETZAILE
					IRRIKA DOINU, MELODIA	
NAROTASUNEZ FINALERA HELTZEN DENA			JANALDI ARIN TONA			
				LEKU HARTARA ZIZARE		
GEHIEGI PARE BAT HITZARMEN, AKORDIO			 <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">Dani Blanco</p>			ALFABETOKO AZKENA AKURAN HARTU
		PERTSONAIAREN IZENA		ASIAKO ESTATUA GALTZA		
JAZZ ESTILO SUARI DARIONA						
	ENERGIA NAFARROAKO HERRIA			ZUR UTIKAN!		
ZEREGIN (ALDERANTZIZ) GILLOTINAN HIL		... OTOAN, EZUSTEAN ZAKURRA		ZINTZO PAUSALDI (ALDERANTZIZ)	URANIOA SUITZAKO IBAIA	EZ EME HIRI, BIZKAIERAZ
					... HOC, LATINEZKO LOKUZIOA ZEREZ ATZIZKIA	
ELEMENTU KIMIKOA ALTU, GARAI			ARGITARA ATERA ELEKTROIA			
		AZTERKETA -GAIA				

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	4		2	1	3		5	
					9	1		
			5				9	
6	5	4						1
		7				2		
1					5	7	9	
	9			8				
		2	3					
	6		5	2	4		8	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Bidegunea, tartea
2. Usoaren okela
3. Norantz
4. Gaia, materiala
5. Ar sortaileak

Ebazpenak

3	6	1	5	2	4	9	8	7
8	7	2	3	9	1	4	6	5
4	9	5	6	8	7	3	1	2
1	2	3	8	4	6	5	7	9
9	8	7	1	3	5	2	4	6
6	5	4	9	7	2	8	3	1
2	1	6	4	5	8	7	9	3
5	3	8	7	6	9	1	2	4
7	4	9	2	1	3	6	5	8

5x5:
1. Gunea. 2. Usok. 3. Norat. 4. Ekata. 5. Aitak.

G	I	O							
K	L	O	R	O					
G	I	L	O	T	I	N	A	T	U
N	A	V	A	L					
K	E								
B	O	P							
L	A	R							
B	I								
F	I	N	I						
N	N								
L	I	Z	A	R	V	A	L	D	E
F	G	U	V						

Lizzie Borden. Zinema militante queer eta lesbiko egilea



Donostiako Tabakalera izan zen otsailean zinegile estatubatuarra. Zinema independentearen erreferente feministak aitortzen ditu; arau eta teorizazioak jarraitu izan balitu, bere pelikulak bestelakoak izango ziratekeen. Dena jartzen du zalantzan Lizzie Bordenen zinemak: emakumeen arteko botere harremanak, heteroaraua, klase soziala. Hautu estetiko erradikalei buruz aritu zaigu hizketan.

“Zine eskolara joan banintz ez nituzkeen egingo egin nituen filmak”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Dorre bikiak

“*Born in flames* pelikularen azken eszenan New Yorkeko dorre bikien suntsiketa irudikatu nuen, 1983an. Askotan galdetu didate ea eszena hura gerora gertatu zenaren iragarle ote den; garai hartan dorre bikiak botere falikoaren adierazleak ziren guretzat, eta egokia iruditu zitzaidan filmaren azken sekuentzian haien leherketa irudikatzea. Hirian egunero ikusten genituen bi falo erraldoi horiek guri begira, eta nik haien kontrako desadostasuna irudikatu nahi nuen”.

Arte plastikoetan eman zenituen lehenengo urratsak, ez da hala?

Hala da, bai. Pintore hasi nintzen artearen munduan. Unibertsitatean nengoela hasi nintzen aldizkari batean arte kritikak egiten, hango irakasle batek proposatuta. Azkar konturatu nintzen ordea, ezagutza kritikoei eta teoriak nire sormena blokeatzen zutela. Egiten nuen gauza oro alde zuzenetik eginda zegoela pentsatzen nuen, eta gorpil zoro batean sartzen nintzen, ez aurrera, ez atzera. Hortik ihes egiteko modua zerbait berri egitea izango zela pentsatu nuen.

Hortaz, zerotik hasia?

Bai, eta eskolarik zapaldu gabe. Garaiko artistak ezagutu nituen New Yorken bizi nintzela: Richard Serra, Sol LeWitt, Joan Jonas... Horiek guztiak zinearekin eta bestelako adierazpen artistikoekin ari ziren esperimentatzen. Horrela erabaki nuen nire sormena berpizteko egokia izan zitekeela ezagutzarik ez nuen zerbaitekin lanean hasia; zinearekin, hain

zuzen ere. Askotan esaten dut, zine akademiarra joan izan banintz, ez nukeela *Born in flames* (Garretan sortua) egingo.

Oso modu librean sortzen dituzu zure pelikulak.

Bai, esan dizudan bezala, Clement Greenberg arte kritikariak aldarrikatzen zuen arteak oso arau zurrunik zuten niretzat. Nik bihotzarekin eta in-tuizioarekin lan egitea bilatzen nuen, elkarlanean eta bazterrean geratzen ziren gaiak buruz. Garai horretan, Manhattaneko erdigunean, artista guztiak elkarrekin zebiltzan eta dena egiten zen elkarlanean. Denbora asko geneukan libre eta gure sormena baldintza horietan garatzen zen.

Testuinguru horretan, feminismoaren bigarren olatuak artean eragin zuen?

Nire kasuan bai. Bi gauzak izan zuten eragina: emakumeen artea ez zen gizonezkoena bezain beste baloratzen. Gizonak maisuak ziren, emakume artistak *per-*



formance-an eta *body* artean zebiltzan nagusiki, eta bigarren mailakotzat jotzen ziren. Era berean, bigarren olatuak nire sexualitatearen inguruko galderak egi-tera bultzatu ninduen. Horregatik-edo, elementu bisuala eta hitzekoa nahasten zituen zinemaren alde egin nuen.

Zergatik interesatzen zaizu bazterrean dauden horien inguruko fikzioa?

Nahiz eta bisexualtzat izan nire burua, beti jakin izan dut ni baino arrisku nabarmenagoan zeudela emakume beltz eta lesbianak. Eta nik horiekin egin nahi nuen lan. Besteak beste, *Born in flames* (1983) pelikula heteropatriarkatuaren kontra altxatzen den emakume talde armatu baten fikzioa da. *Outsider*-en eta baztertzearen ideiarekin egin nahi nuen lan; izan ere, garai hartako feminismoak lesbianismoa baztertzen zuen, eta are gehiago klase baxuetako emakume beltzena. Era berean, transexualitatearen gaia agertzen da filmean, baina artean ez genuen hori izendatzeko terminorik.

Inork salatu zaitu biolentziaren apologia egiteagatik pelikula horren harira?

Tira, film horretan hainbat erresistentzia forma erretratatzeko saiatu nintzen, afixen banaketa, eztabaida taldeak, irratia programak... Era berean, pertsonaia batzuek armak erabiltzen dituzte baina inoiz ere ez pertsonen kontra. Nire ustez, pelikula aktibatzen duen galdera honakoa da: zer momentutan bultzatzen da jendea biolentzia hautatzera? Emakume horiek armak baino ez dituzte hartzen, erabili gabe, eta jada horrek biolentziaren ordena sinbolikoa eraldatzen du.

Klase ikuspegia ere garrantzitsua izan da zuretzat.

Lehen aipatu dizudan artisten taldean hutsune handia sumatzen nuen. Guztiak ginen klase ertain edo altuetatik eratorriak, eta horrekin batera, zuriak. Nik, ni bezalakoak ez zirenen kezka ezagutu eta azalarazi nahi nituen. Gizartearen egon zitezkeen emakume haserretuenekin egon nahi nuen.

"Nahiz eta bisexualtzat izan nire burua, beti jakin izan dut ni baino arrisku nabarmenagoan zeudela emakume beltz eta lesbianak. Eta nik horiekin egin nahi nuen lan".

Regrouping (1976) pelikulan emakumeen arteko batasunari buruz hitz egin zenuen. Harrigarria da zer gaurkotasun duen...

Jakina, izan ere pelikula hori gai unibertsal bati buruz ari da: nola izan talde bateko kide? Oso gai konplexua da, eta zailtasun horiek behin eta berriz agertzen dira pelikulan, bere burua etengabe auzitan jartzen duen filma delako. Azken batean, nik galderak egiten ditut nire filmetan, ondorioak atera baino. Eta horretan kezka nagusia honakoa zen: inoiz benetan iristen al gara talde bateko kide sentitzera? Izan ere, ahalegin handiak egiten ditugu emakumeek gure arteko batasuna sentitzeko, baina gerora beti dugu bakarrik gaudelako sentsazioa. ■



Magdalena Ortiz iruindarra jo dute lurrikararen sortzailatzat.

EH Bilduk irmoki gaitzetsi du Iruñeko lurrikara

“Nola liteke XXI. mendean oraindik horrelakoak gertatzea?” diote jakintsuek

Joan den asteko ostiralean Iruñerria astindu zuen lurrikarak erreplika gogorra izan zuen larunbat arratsean, edukiontzi batzuk lurrera jaustea eragin zuena eta Richter eskalan 25 edo 26 gradura iritsi zena Josephus Asironius sismologoaren detekzio gailuetan. Kezkatuta azaldu da koalizio independentistako

kide Aio Karrikak: “Herritarrak dardarka jartzeak normalizazio tektonikotik urruntzen gaitu”, adierazi du, zertaz ari den dakienaren aurpegi eta guzti.

Askapen Tektonikorako Asanbladak, berriz, ez du begi onez ikusi lurraren mugimendu askeei trabak jarri nahi izatea. “Euskal lurpea burujabea da eta noizean behin izu pixka bat eragiten badu, ba aizue...”, esan dio Suah Aldekoa ele-dunak *Beranduegiri*. Zehazten hasita, erru guztia espainiar plakak duela gaineratu dute.

SAREAN ARRANTZATUA

Euskotrolololo



Euskal Kremlina



Xabi Alonso Madeirara doa bizitzera bere irudi-eskubideekin

Xabi Alonsok zerbait oso inportantea iragarri du martxoaren 9an. Ingelesezt. EIZIera deika ari gara itzulpen zehatza eduki ahal izateko, baina bitartean, zurrumurru nahiko fidagarrietan oinarriturik, informatzen dizuegu Madeirara joango dela bizitzera. “Bere buruarekin berriz topo egiteko aldatuko da etxetz”, baieztatu dio *Beranduegiri* bere laguna

dela dioen baten lagun baten lehengusuak: “Alonsok bere irudi-eskubideak Madeirako enpresa bati saldu zizkionetik, ez zegoen gustura, ez zuen bere burua aurkitzen. Eta gainera komunista batzuek zabaldu zuten zergak ez pagatzeko egin zuela, dirua inportanteena balitz bezala. Oso gogorra izan da berarentzat. Orain zoriontsuago izango da”.



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

ARGIA

**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAIUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa